



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## 2020KO MAIATZAREN 27AN UDALBATZA PLENOAK EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### 13. BILKURA

Azkoitia Hiri Prestu eta Leialeko udaletxean, bi mila eta hogeiko maiatzaren 27an, arratsaldeko zazpitan elkartu da Udalbatza Osoa, lehenengo deialdian. Ohiko bilkura honetarako deialdia behar bezala egin da eta eguneko aztergai zerrendan jarri diren gaiak aztertu eta ebatzi dira.

Javier Zubizarreta Zubizarreta Alkate jauna (EAJ-PNV) izan da batzarburua, honako zinegotziak bertaratu direlarik:

Ana Azkoitia Urteaga A. (EAJ-PNV).  
Imanol Arrizabalaga Larrañaga J. (EAJ-PNV).  
Marijose Arregi Etxeberria A. (EAJ-PNV).  
Iraitz Otaño Mujika J. (EH BILDU).  
Itziar Joaristi Olariaga A. (EH BILDU).  
Ane Miren Peña Larrañaga A. (EH BILDU).  
Jose Joakin Etxaniz Peña J. (IRABAZI-AZKOITIA BAI).  
Janire Igoa Merino A. (PSE-EE).

Ezin etorriak:

Sonia Vazquez Tejerina A. (EAJ-PNV).  
Laida Beristain Zubizarreta A. (EH BILDU).  
Angel Luis Martin Rodriguez J. (EAJ-PNV).  
Mertxe Zubillaga Albizu A. (EAJ-PNV).  
Juan Bautista Mendizabal Juaristi J. (EAJ-PNV).  
Ainara Goenaga Andueza A. (EH BILDU).  
Mikel Zengotita Alberdi J. (EH BILDU).  
Angel M<sup>a</sup> Etxeberria Ibarburen J. (EH BILDU).

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta, Udal Idazkaria.

Alkate jaunak bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrendaren arabera:

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA, HALA BADAGOKIO.**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alkate Jk. 2020ko martxoaren 25ko aktan, bukaera ordua gaizki dagoela dio, bederatziak eta laurdenetan bukatu zela jartzen duen lekuan, eguerdiko ordu bietan bukatu zela jarri behar dela.

Alarma egoera dela eta, bilkura honetara etorri ez direnak, aurreko bilkurara etorri zirela esan du Itziar Joaristi andreak, gutxienekoetara jo izan delako.

2020ko martxoaren 25ko bilkurako aktaren bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Iraitz Otaño Mujika, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

**Abstentzioa:** Itziar Joaristi Olariaga eta Ane Miren Peña Larrañaga.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020ko martxoaren 25an egindako bilkuraren akta onartzea aho batez erabaki du.

## **2.- 2020 EKITALDIRAKO UDAL ARAUDI PLANAREN ALDAKETAREN ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

### **“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA**

#### **GAIA: 2020KO ARAUDI PLANAREN ALDAKETA**

#### **AURREKARIAK**

2020ko martxoaren 25eko osoko bilkuran erabaki zen, besteak beste:

**Lehenengoa:** 2020rako Udal Araudi Plana onartzea, aurrez aipatutako testuarekin.

**Bigarrena:** Aipatutako plana udal web orrian erakusgai jartzea.

#### **ZUZENBIDEZKO OINARRIAK**

2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen 39/2015 Legea. Honen 132. Artikuluak honakoa dio:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**Artículo 132. Planificación normativa.**

1. Anualmente, las Administraciones Públicas harán público un Plan Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente.

2. Una vez aprobado, el Plan Anual Normativo se publicará en el Portal de la Transparencia de la Administración Pública correspondiente.

Horren arabera, Udal honek martxoaren 25eko osoko bilkuran Araudi Plana onartu zuen, momentu hartan mahai gainean zegoen aurreikuspenaren arabera, baina kontuan hartu gabe Udalak martxan zuen diru-laguntzen oinarrien berraztertze eta eguneraketaren gaia, eta bereziki, lanketa haren emaitza.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-Laguntzen Lege Orokorak honakoa dio 17. Artikuluan:

17.2. Las bases reguladoras de las subvenciones de las corporaciones locales se deberán aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones.

Ikusita, alde batetik Udalak izapidetzen dituen diru-laguntza guztiei aplikagarri izango zaizkien oinarri orokor batzuk onartzeko asmoa dagoela, ordenantza orokor baten bitartez. Bestetik, norgehiagoka bidez ematen diren diru-laguntza lerro ezberdinenei dagokienean, horiek arautzen dituzten oinarri espezifikoak bateratu eta oinarri orokor horietara egokitzeko lanetan ari garela, eta horren ondorioz, diru laguntza lerro horien oinarri espezifikoak dagozkien ordenantza espezifikoak aldatuz egokituko direla, honakoa onartzea proposatzen zaio Osoko Bilkurari,

**IRIZPENA**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Lehenengoa: 2020rako Araudi Planaren aldaketa onartzea, 5. Puntu bat txertatuz onartzea edo aldatzea planteatzen den ordenantzen zerrendan, Eranskinean xedatzen den testuaren arabera.

Bigarrena: Aipatutako planaren aldaketa, udal web orrian erakusgai jartzea.

ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO IDAZKARIAK

ERANSKINA I

5.- DIRU-LAGUNTZAK

5.1.- DIRU-LAGUNTZEN OINARRI OROKORRAK ARAUTUKO DITUEN  
ORDENANTZA (BERRIA)

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, Diru-laguntzen Lege Orokorrak, xedatzen du diru-laguntzen oinarriak onartuko direla ordenantza orokor edo espezifikoen bidez. Kontuan izanda diru-laguntzen izapidetza guztiek, bai zuzenekoek bai eta norgehiagoka bidez ematen direnek, hainbat aspektu komun bete behar dituztela, egokitzat jotzen da guztiak era bateratuan arautuko dituen ordenantza orokor bat onartzea, lerro ezberdinen artean araudi berdin bat egon dadin, posible den heinean, eta zuzeneko diru-laguntzei dagokionean, hitzarmenez gain araudi orokor eta komun bat izan dezaten.

5.2.- NORGEHIAGOKA BIDEZ EMATEN DIREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRI  
ESPEZIFIKOAK, ORDENANTZA ESPEZIFIKOA LERRO BAKOITZERAKO:  
(ALDAKETA)

Norgehiagoka bidez ematen diren diru-laguntzen kasuan, horien oinarriak arautzen dituzten hainbat ordenantza espezifiko daude (kasu batzuetan ordenantza terminoa aipatzen da eta beste batzuetan ez, baina orokorrean ordenantzen izapidetza jarraituta



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

onartu ziren). Dena den, horiek garai ezberdinetan onartuak izan dira eta ezberdinak dira beraien artean, eta horrek sortzen du diru-laguntza lerro ezberdinen onuradunei tratamendu ezberdina ematea. Diru-laguntzak eskatzen dituzten Azkoitiko herritar eta taldeen artean ahalik eta ezberdintasun gutxien sortu (epeen aldetik, ekarri beharreko dokumentazioaren aldetik, gastu justifikagarrien aldetik) eta diru-laguntzak eskatzeko izapidetza argitu eta errazte aldera, diru-laguntzen gaia azertu, eguneratu eta bateratzea garrantzitsutzat jo da. Lan horien ondorioz, lerro ezberdinen artean gauzak bateratu, sinplifikatu eta argitzea nahi da, eta aldaketok helburu horiek izango dituzte.

Aldatuko diren oinarrien ordenantza espezifikoak honakoa izango dira, diru-laguntza lerroka zehaztuak:

EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK	
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK
Errotuluak, irudi korporatiboa, web guneak, programa informatikoak eta publizitatea eskaraz jartzeko diru laguntzak.	Errotuluak, irudi korporatiboa, web guneak, programa informatikoak eta publizitatea eskaraz jartzea.
Euskara ikasi eta UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren uda ikastaroetara joateko diru laguntzak eta ez ohiko jarduera puntualak.	Euskara ikastea eta UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren uda ikastaroetara joatea eta euskara sustatzeko jarduera puntualak bultzatzea.
Enpresetan euskara planak egiteko edo garatzeko diru laguntzak.	Enpresetan euskara planak egitea edo garatzea.

ONGIZATE ARLOKO DIRULAGUNTZAK	
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzaz garatzeko diru laguntza.	Gobernuz Kanpoko Erakundeei garapen bidean dauden herrialdeetan burutzen dituzten programak aurrera eramateko diruz laguntzea, baita azkoitiarrak sentibilizatzeko antolatzen dituzten ekintzak ere.
--	--

ETXEBIZITZA ARLOKO DIRU-LAGUNTZAK	
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK
Azkoitiko Udalerrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak	Eskaera egiten duten gazteen ohiko bizilekua izango den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea, zati batean.
Azkoitiko Udalerrian alokairu soziala sustatzeko laguntzak	— Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza. — Etxebizitzak eraberritu eta haien irisgarritasuna bermatzeko diru-laguntzak. — Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan.

BERDINTASUNAREN ARLOKO DIRULAGUNTZAK	
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK
Emakumearen sustapena bultzatzen duten elkartei diru-laguntzak	Azkoitian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko azkoitiarrentzat irabazi asmorik gabeko elkarteek antolatzen dituzten jarduerak diruz laguntzea

INGURUMEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK	
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ingurumen arloko diru-laguntzak	Azkoitian ingurumenaren esparruan jarduerak sustatzea
---------------------------------	---

MERKATARITZA ARLOKO DIRULAGUNTZAK. IZAPIDEGILEA: MERKATARITZA SAILA	
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK
Azkoitiko hiri-lurrean lokalen alokairua sustatzeko laguntzak	Azkoitiko lokal hutsak betetzea edota jardueretan belaunaldiaren aldaketa sustatzea, Ekintzaile berrien bitartez.
Azkoitiko Udalerrian merkataritza sustatzeko laguntzak	Azkoitiko Merkatariek (elkartu naiz Elkartu gabeak), herrian Ekintza ezberdinak antolatzeko laguntza ematea.

KIROL ARLOKO DIRULAGUNTZAK	
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK
Azkoitiko Udalerrian KIROLA sustatzeko laguntzak	Herriko talde eta norbanakoek kirol ekintzak antolatzeko modua izatea.

FESTA ARLOKO DIRULAGUNTZAK	
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK
Azkoitiko Udalerrian FESTAK sustatzeko laguntzak	Azkoitiko auzo elkarte eta norbanakoak, festak antolatzeko modua izatea.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ANDRAMARI Jaiak sustatzeko diru laguntza.	Elkartek Andramari jaietan ekintzak antolatzeko modua izatea.
---	---

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Itziar Joaristi, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz.“

Ana Azkoitia andreak planteatu du, dirulaguntzen gaia lantzen ari direnaren arabera horiek Araudi Planean sartzea.

Baita ere dio, dirulaguntzen hitzarmenak berriak izango direla, araudi berriari egokituak.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Dirulaguntzak bateratzeko eta laguntzen artean dauden ezberdintasunak saihesteko asmoarekin eginak direnez, alde bozkatuko dugu.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Mari Jose Arregi Etxeberria, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga, Ane Miren Peña Larrañaga, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2020 ekitaldirako Udal Araudi Planaren aldaketa onartzea aho batez erabaki du.

**3.- GAZTEEN ALOKAIRUAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK IZAPIDETZEKO AZKOITIKO UDALA ETA AZKOITIA LANTZEN, S.A.REN ARTEKO HITZARMENA ONESTEA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA**

**GAIA: AZKOITIA LANTZEN S.A.: ALOKAIRUA SUSTATZEKO LAGUNTZAK IZAPIDETZEKO HITZARMENA BERRITZEA**





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Irizpen honen bitartez proposatzen da Azkoitia Lantzen, S.A sozietatearekin eranskinean datorren hitzarmena sinatzea, sozietate honek aurrera eraman ditzan bertan zehaztutako egintzak *Azkoitiko udalerrian alokairu soziala bultzatzeko laguntzen eta Azkoitiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzen izapidetzeen inguruan.*

Jarraian transkribatzen da Idazkariaren txostena gaiaren aurrekariak eta azterketa juridikoa azaltzen dituena.

### **AURREKARIAK**

**LEHENA.-** *2015eko urtarrilaren 29an Udalbatza Osoak honakoa erabaki zuen, besteak beste:*

- **LEHEN.-** *Informazio publikoko izapidearen barruan Azkoitiko udalerrian alokairu soziala bultzatzeko laguntzen programa arautzen duen Ordenantzari Gipuzkoako Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Federazio Koordinatzaileak (Elkartu) aurkezturiko alegazioa onartzea, irizpenean jasotako aurrekarien terminoetan.*

- **BIGARRENA.-** *Azkoitiko udalerrian alokairu soziala bultzatzeko laguntzen programa arautzen duen Ordenantza behin betikoz onartzea.*

•

*2015eko otsailaren 10ean, Ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 26. zk.an argitaratu zen, eta indarrean jarraitzen du orain arte.*

*Egun bizi dugun egoera dela eta, alde batetik, diru-laguntza linea honetan eskaera gutxi daudela kontuan izanda, bestetik, eta Udala diru-laguntzen inguruan egiten ari den lanketa orokorra dela medio (oinarri orokorren idazketa lanak eta espezifikoen berrikuspen eta bateratze lanak) diru-laguntza linea honen deialdia atzeratu egingo dela aurreikusten da, baina Azkoitiko Udalak asmoa du urtean zehar egiteko.*

**BIGARRENA.-** *Azkoitiko udalbatza plenoak, 2015eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, ondoko ebazpen hauek hartu zituen, besteak beste:*

**LEHENA.-** *Azkoitiko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituzten oinarrietako Ordenantza erregulatzailerak hasieraz onartzea, diktamen honen eranskinean jasotzen den testuaren arabera.*

**BIGARRENA.-** *Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

aurkez ahal ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan eta Azkoitiko Udalaren web orrian argitaratzea.

Ordenantzari zegokion espedientea informazio publikoan jarri ondoren, inolako erreklamaziorik ez zen aurkeztu. Hots, 2015eko apirilaren 8an, Ordenantzaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 64. zk.an argitaratu zen, eta indarrean jarraitzen du orain arte.

**HIRUGARRENA.-** Ordenantzaren aplikazioak sorturiko arazoak ikusita, eta haiek konpontzeko asmoarekin, udalbatza plenoak, 2017ko otsailaren 22an egindako bilkuran, hainbat aldaketa gitea onartu zuen, ondoko helburuekin:

- Bizikidetzaren unitatearen gutxienerako sarrerak finkatzea, batez ere iruzur fiskalari aurre egiteko.
- Udalaren ikuskaritza-ahalmenak, eta korrelatiboki, onuradunen betebeharrak arlo horretan, zehaztea.
- Dirulaguntza aldatzeko edo galtzeko kasuak arautzea.

Informazio publikoko epea iragan eta inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu ez zenez, Ordenantzaren behin-betiko testua 2017ko maiatzaren 2an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Ordenantzarekin batera, 2017ko diru-laguntzak emateko deialdia argitaratu zen egun berean.

**LAUGARRENA.-** Laguntza hauen izapidetzeak, udalean dagoen lan-karga administratiboa areagotuko du, eta bertan dauden baliabideak murriztu dira. Bestaldetik, aurrekontu eta pertsonalaren arloetan indarrean dagoen legeriak ezartzen dituzten mugek asko zailtzen dute pertsonal berriaren hautaketa zeregin hauetarako.

**BOSGARRENA.-** Azkoitiko udalak, Azkoitia Lantzen S.A. udal sozietatea 1987ko azaroaren 23an sinatutako eskritura publiko bidez sortu zuen eta haren Estatutuak 1997ko otsailaren 3an formalizatutako eskritura bidez egokituak izan ziren.

Txosten honek oinarritu nahi duen irizpenaren bitartez, 2019ko maiatzaren 23an sinatutako hitzarmenean adostutako kudeaketarekin jarraitzea proposatzen da, azken honek izapidetzeko gazteen alokairua sustatzeko eta alokairu soziala bultzatzeko Azkoitiko udalak 2020ko ekitaldirako onarturiko laguntzak, beti ere administrazioari dagozkion eginkizun eta ahalmenak eskuordetu gabe.

## AZTERKETA JURIDIKOA



## **LEHENA. HITZARMENEI DAGOKIEN ARAUDIA**

Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa onartzen duenak, besteak beste, honela arautzen ditu hitzarmenak:

### **47. Artikuluak honakoa dio:**

1. *Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas **entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.***

(...)

*Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público.*

2. *Los convenios que suscriban las Administraciones Públicas, los organismos públicos y las entidades de derecho público vinculados o dependientes y las Universidades públicas, **deberán corresponder a alguno de los siguientes tipos:***

(...)

c) *Convenios firmados entre una Administración Pública u organismo o entidad de derecho público y **un sujeto de Derecho privado.***

### **48. Artikuluak honakoa dio:**

1. *Las Administraciones Públicas, sus organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes y las Universidades públicas, **en el ámbito de sus respectivas competencias, podrán suscribir convenios con sujetos de derecho público y privado, sin que ello pueda suponer cesión de la titularidad de la competencia.***

3. *La suscripción de convenios **deberá mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública** y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.*

### **50. artikulua honakoa dio:**

1. *Sin perjuicio de las especialidades que la legislación autonómica pueda prever, será necesario que el convenio se acompañe de una memoria justificativa donde se*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**analice su necesidad y oportunidad, su impacto económico, el carácter no contractual de la actividad en cuestión, así como el cumplimiento de lo previsto en esta Ley.**

*Beraz, laburbilduz, 40/2015 Legeak honako baldintzak eskatzen ditu Azkoitiko Udala bezalako toki erakundeek eta arlo pribatuan jarduten duten erakundeen arteko hitzarmenak sinatzeko:*

- **Helburu komunak lortzea ahalbidetzea, kudeaketa publikoaren efizientzia eta baliabideen erabilera partekatua erraztuz**
  - **Erakundeek beren eskumenen barruan jardutea**
  - **Kontratu izaerarik ez izatea**
  - **Eskumenen titularitatean aldaketarik ez ematea.**
- 
- **Aipatutako a) eta b) puntuei dagokionean honakoa adierazi behar dugu (Helburu komunak lortzea ahalbidetzea, kudeaketa publikoaren efizientzia eta baliabideen erabilera partekatua erraztuz eta erakundeek beren eskumenen barruan jardutea):**

*Azkoitia Lantzen, S.A. sozietatearen xedea honakoa da:*

*Sozietatearen xedea da era guztietako zerbitzuak sustatzea, antolatzea eta urbanizatzea, eta erabilgarritasun publiko edo pribatua izan dezaketen etxebizitzak, eraikin industrialak, zerbitzuak eta komunitateko zuzkidurak sustatzea, proiektatzea, eraikitzea, erostea, saltzea edo beste modu batean lagatzea eta kudeatzea, betiere AZKOITIAren eta azkoitiarren onurarako.*

*Era berean, haren xede soziala izango da, Sozietate Urbanizatzaile gisa jarduteaz gain, Birgaitzeari dagokiona, Birgaitze Area Integratuetan Birgaitze Plan Bereziatako zehaztapenak eginez eta horiek hobeto egikaritzuz.*

*Era berean, Azkoitiko Udalak honako eskumenak ditu apirilaren 14ko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeek buruzko Legearen 17. Artikuluaren arabera:*

- Etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa
- Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina
- Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

*Hitzarmen honek jasotzen dituen egintzak, aurrez zehaztu legez, Azkoitiko bi diru-laguntza lerroren kudeaketaren ingurukoak dira. Diru-laguntza hauek erregulatzen*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

dituzten ordenantzek arrazoiaren azalpenetan honako aipamenak jasotzen dituzte, diru-laguntzekin lortu nahi diren helburuen inguruan:

**Azkoitiko Udalerrian alokairu soziala bultzatzeko laguntzen araudiak honakoa dio:**

“Azkoitiko Udalak udalerrian hutsik dauden etxebizitzak alokairu soziala bultzatu nahi du egitasmo honen bitartez. Horretarako Eusko Jaurlaritzako Bizigune eta Asap programak osatu nahi ditu (...) (Azkoitia Lantzen-ek ematen du programa hauen inguruko informazioa eta hein batean kudeatzean ditu horien inguruko eskaerak)

- Azkoitiko Udalak zehazki honako helburuak lortu nahi ditu programa honekin:
- Oinarrizkoa den etxebizitza eskubidea bermatzen lagundu
- Hutsik dauden etxebizitzak alokairu soziala bultzatu
- Etxebizitzak eraberritzea bultzatu eta herriko ekonomia suspertu
- Etxebizitzetan eta orokorrean egoitza-erakinetan irisgarritasuna bermatzea

Horretarako hainbat diru-laguntza eman nahi die hutsik dauden etxebizitzak jabeek azken horiek bere jabetzakoak diren higiezinak alokatzen jarri ahal ditzaten; hala nola obrak egiteko edota Efizientzia Energetikoaren Ziurtagiria lortzea sortarazten dituen gastuei aurre egiteko”

**Azkoitiko Herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak ematea arautuko dituen ordenantza erregulatuak honakoa dio:**

“Azken helburu bezala du:

-Bereziki pertsona gazteei laguntzea, euren emantzipazio bidean eta helduen mundura sartzeko prozesuan

-Modu orokorrean Azkoitiko herrian alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea

-Arkitektura oztopoak ezabatzeko indarrean dagoen araudiak ezarritako irisgarritasun baldintzak betetzen dituzten alokairuko etxebizitzak eskuratzea sustatzea.

Ondorioz, justifikatuz jotzen da, alde batetik, hitzarmen honen objektu diren egintzak, aipatutako diru-laguntzen izapidetzei lotuta dauden heinean, bi erakundeek eskumenekoak direla eta beren helburuei erabat lotuta daudela.

Bestetik, hitzarmen honen bidez baliabideen erabilpen efizienteago bat egiten dela, etxebizitzak kudeaketarekin zerikusia duten gaien inguruko informazio guztia Azkoitia Lantzen, S.A.ko pertsonalaren esku utziz.

Era honetan lortzen da, etxebizitzak kudeaketarekin zerikusia duten gaien inguruko informazio osoa (bai Azkoitiko Udalak ematen dituen diru-laguntza hauen ingurukoa, bai eta Eusko Jaurlaritzak izapidetzen dituen diru-laguntza edo kudeaketen inguruko



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

informazioa, hala nola, Bizilagun, Etxebide, Bizigune, Birgaitze diru-laguntzak etab.) Azkoitia Lantzen S.A.ko pertsonalak ematea. Horrela lortzen da zerbitzu hauen espezializazioa eta herritarra leku bakar batera joatea etxebizitzaren kudeaketarekin zerkusia duten gai guztiak izapidetzerara. Ondorioz, bi erakundeek zerbitzuen arteko sinergiak lortzen dira, herritarra era oso eta egokiagoan informatzea lortuz.

**c) puntuaren betetzearen inguruan (kontratu izaerarik ez izatea):**

9/2017 Legeak, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituenak, honakoa dio:

**2. artikulua:**

1. Son contratos del sector público y, en consecuencia, están sometidos a la presente Ley en la forma y términos previstos en la misma, **los contratos onerosos**, cualquiera que sea su naturaleza jurídica, que celebren las entidades enumeradas en el artículo 3.

Se entenderá que **un contrato tiene carácter oneroso en los casos en que el contratista obtenga algún tipo de beneficio económico, ya sea de forma directa o indirecta.**

Aipatu behar dugu, hitzarmen honen objektu diren egintzek ez dutela kontraprestaziorik, hau da, Azkoitia Udalak ez diola ordainketarik egiten Azkoitia Lantzen, S.A. sozietateari Azkoitiko Udalaren diru-laguntza deialdien barruan egin beharreko lanak egiteagatik, eta egiteko hauek burutzeak ez dituela aldatzen Azkoitia Lantzen, S.A. enpresak jasotzen dituen diru-sarrerak.

Beraz, hitzarmen honen objektu denak kontratu izaerarik ez duela esan dezakegu eta horrela, puntu hau betetzen dela adieraz dezakegu.

- **puntuaren betetzeari dagokionez** (eskumenen titularitatean aldaketarik ez ematea)

Hitzarmenaren seigarren hizpaketan zehazten da honakoa:

Hitzarmen honek ez dakar ez eskumenaren titulartasuna, ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, Azkoitiko Udalaren ardura izango da egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.

Aipatutako 40/2015 Legeaz gai, 9/2017 Legeak ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak, arautzen ditu hitzarmenak, administrazio publiko eta botere esleitzaileraren artean erakunde pribatuen artean burutzen direnak.

Azkoitia Lantzen S.A. erakundea botere esleitzaileraren da.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Botere esleitzaille izaerari dagokion araudia berdin mantendu da 3/2011 Errege Dekretu Legegilean eta 9/2017 Legean, eta hainbatetan zehaztu izan da Azkoitia Lantzen, S.A.ren botere esleitzaille izaera, besteren artean, 2012an Txalonerrekako 8 partzelaren lizitazioa prozeduran, 2009an Egin Berri zabortegiko lixibiatuen tratamenduari zegokion kontratazio prozedura atera zenean eta 2013an, Elkargune eta Ugarteigarango estali gabeko igerilekuen azalera eskubideen eskualdatzeari lotutako espedientean.

9/2017 Legeak 3.3 artikuluan botere esleitzaileri ematen dion definizioa honakoa da:

3.3. Se considerarán poderes adjudicadores, a efectos de esta Ley, las siguientes entidades:

d) Todas las demás entidades con personalidad jurídica propia distintas de las expresadas en las letras anteriores que hayan sido creadas específicamente para satisfacer necesidades de interés general que no tengan carácter industrial o mercantil, siempre que uno o varios sujetos que deban considerarse poder adjudicador de acuerdo con los criterios de este apartado 3, bien financien mayoritariamente su actividad; bien controlen su gestión; o bien nombren a más de la mitad de los miembros de su órgano de administración, dirección o vigilancia.

Azkoitia Lantzen S.A.ren kasuan, aurrez esan bezala eta hainbatetan justifikatu bezala, betetzen dira baldintza horiek. Hori adierazteko honakoak hartu behar da kontuan:

1. Sozietatearen jarduera eta helburuak aipatu tokiko erakundearen berezko eskumenekin lotuta daude, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, 25.2.c) artikuluan ezarritakoaren arabera: hirigintzako kudeaketa eta egikaritzea, lurzorua eta etxebizitzak sustatzea, zuzkiduretarako eraikinak egikaritzea, mota guztietako zerbitzuak ematea.
2. Sozietateko organo erabakitzaileen izendapena Azkoitiko Udalaren esku dago, eta Udalbatzari dagokio Administrazio Kontseilua izendatzea. Horri dagokionez, Batzar Nagusia eta Udalbatzaren osoko bilkura aldi berean egin beharko dira. Estatutuen 14. artikulua betez, kontseilari izateko beharrezkoa izango da Udalbatzako kide izatea, eta haren alkate lehendakaria izango da sozietateko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Horregatik SPKLaren 6. Artikulua aplikagarria da kasu honetan. Honakoa dio:

#### **Artículo 6 Convenios y encomiendas de gestión**

Quedan excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios, cuyo contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales celebrados entre sí por la Administración General del Estado, las Entidades Gestoras y los Servicios Comunes de la Seguridad Social, las Universidades Pú-



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*blicas, las Comunidades Autónomas y las Ciudades Autónomas de Ceuta y Melilla, las Entidades locales, las entidades con personalidad jurídico pública de ellas dependientes y las entidades con personalidad jurídico privada, siempre que, en este último caso, tengan la condición de poder adjudicador.*

*Su exclusión queda condicionada al cumplimiento de las siguientes condiciones:*

*a) Las entidades intervinientes no han de tener vocación de mercado, la cual se presumirá cuando realicen en el mercado abierto un porcentaje igual o superior al 20 por ciento de las actividades objeto de colaboración. Para el cálculo de dicho porcentaje se tomará en consideración el promedio del volumen de negocios total u otro indicador alternativo de actividad apropiado, como los gastos soportados considerados en relación con la prestación que constituya el objeto del convenio en los tres ejercicios anteriores a la adjudicación del contrato. Cuando, debido a la fecha de creación o de inicio de actividad o a la reorganización de las actividades, el volumen de negocios u otro indicador alternativo de actividad apropiado, como los gastos, no estuvieran disponibles respecto de los tres ejercicios anteriores o hubieran perdido su vigencia, será suficiente con demostrar que el cálculo del nivel de actividad se corresponde con la realidad, en especial, mediante proyecciones de negocio.*

*b) Que el convenio establezca o desarrolle una cooperación entre las entidades participantes con la finalidad de garantizar que los servicios públicos que les incumben se prestan de modo que se logren los objetivos que tienen en común.*

*c) Que el desarrollo de la cooperación se guíe únicamente por consideraciones relacionadas con el interés público.*

*Aurrez justifikatu denez, hitzarmen honen objektu diren egintzek ez dutela kontratu izaerarik, jarraian justifikatu nahi da aipatutako lege-xedapenak ezarritako baldintzak ere betetzen direla kasu honetan.*

*Arestian esan bezala, hitzarmen honen objektu diren kolaborazioko egintzak Azkoitiko Udalaren eskumenekoak diren diru-laguntzen izapidetzeen barruko zenbait izapide burutzean oinarritzen dira, inolako momentutan eskumenaren transferentziarik ez dagoelarik ezta ere diru-laguntza bidez emango diren fondoan transferentziarik. Egintza hauek ez dira merkatu irekian eskaintzen, Azkoitia Lantzen S.A. erakundeak Azkoitiko Udalaren diru-laguntzen kasuan egiten ditu, eta horregatik ez du kontraprestaziorik jasotzen. Hau da, egiteko hauek burutzeak ez ditu aldatzen Azkoitia*





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Lantzen, S.A. enpresak jasotzen dituen diru-sarrerak. Beraz, lehenengo puntua betetzen dela adieraz dezakegu.*

*Bigarren eta hirugarren puntuen inguruan, aipatu behar da hitzarmen honen objektuak bi erakundeen eskumenekoak diren egintzak batzen dituztela, eta gainera biek dituzten helburuak lortzea ahalbideratzen dutela, lehen adierazi bezala.*

### **BIGARRENA.- ORGANO ESKUDUNA**

*Kasu honetan planteatzen den hitzarmenean, berez Azkoitiko Udalarenak diren eskumenak, diru-laguntzen izapidetza, Azkoitia Lantzen sozietate pribatuaren esku uzten diren momentutik funtzioen nolabaiteko enkomenda edo delegazio bat dagoela iritzita egokitzen jotzen da hitzarmena Osoko Bilkurak onartzea, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p) artikulua eta 47.2. h) artikuluan oinarrituta, kontuan izanda, azken honen baitan onarpena gehiengo absolutu bidez eman beharko zaiola.*

### **ONDORIOA ETA PROPOSAMENA**

*Ondorio gisa azpimarratu behar da, batetik, bi erakundeen objektu eta eskumenen barruko helburuak batzen dituztela aipatutako ordenantzetan erregulatzen diren diru-laguntzek. Hori dela eta, berauen kudeaketan erakunde biek kolaborazioan jardutea egokitzen jotzen da.*

*Gaiaren justifikazioa bukatzeko, eta txosten honi 40/2015 Legearen 50. artikuluan zehaztutako memoriaren izaera ematea dagokiola adieraziz, ulertzen da aipatutako justifikazioa kontuan hartuta garbi geratzen dela hitzarmen honen burutzea beharrezkoa eta egokia dela bi erakundeen arteko helburuak betetzen laguntzeko, objektu dituen diru-laguntzen izapidetzeari dagokionez. Hainbatetan zehaztu legez, ez dago kontraprestaziorik, beraz, ez da bere inpaktu ekonomikoa aztertu behar.*

*Hortaz, ulertzen da bai 40/2015 Legeak 47 eta hurrengo artikuluetan zehaztutako eta azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla eta hortaz, bi erakundeen arteko hitzarmena egitea posible dela proposatzen den hitzarmenaren testuan adierazten diren hizpaketekin.*

*Zuzenbidean hobeto oinarritutako beste iritzi baten kalterik gabe,*

*Azkoitian, 2020ko maiatzaren 12an*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Amaia Gorrotxategi Zubizarreta*  
*Udal Idazkaria*

Beraz, hau dena kontuan hartuta, ondoko irizpenaren onespena proposatzen zaio Ogasuna, Barne Antolakuntza, Pertsonala, Kontratazioa, Sustapen ekonomikoa eta Merkataritza Batzorde Informatiboari:

## **IRIZPENA**

**LEHENA.-** Azkoitiko udalak udalerrri honetan alokairua sustatzeko laguntzak izapidetzeko Azkoitia Lantzen S.A.rekin, ondoko baldintzen arabera, dagokion hitzarmena onartzea honako hipaketak jasotzen dituen:

**“LEHENA.-** Hitzarmen honek, udalerrri honetan alokairua sustatzeko Azkoitiko udalak onarturiko laguntzak izapidetzeko Azkoitia Lantzen S.A. eta Udalaren harremanak arautuko ditu

**BIGARRENA.-** Hitzarmen honen bitartez, alderdiek ondoko zereginak beteko dituzte:

Azkoitia Lantzen S.A. ondoko zeregin hauek beteko ditu:

- 1.** Azkoitiko udalaren Herritarren Arreta-Bulegotik zuzenduriko eskaerak eta beraiei dagokien dokumentazioa jaso eta sailkatuko ditu.
- 2.** Deialdi eta Oinarri Arautzaileetan xedaturiko dokumentazioa aurkeztu den ala ez egiaztatuko du, eta beharrezkoa den kasuan, dokumentazioa osatzeko 10 eguneko epea emango dio eskatzaileari.
- 3.** Jasotako eskaerak dagokion Udal Zerbitzura bideratuko ditu, izapidearen arabera, dokumentazioa edota txostena eskatuz.
- 4.** Tramite hauek amaitzen direnean, dagokion ebazpen-proposamena erredaktatuko du, eta Udal Idazkaritzara igorriko du.
- 5.** Behin eskuduntza duen udal organoak eskatutako laguntzari buruzko ebazpena hartuz gero, interesatuari jakinaraziko dio.
- 6.** Halaber, udal baltzuak, dirulaguntzak izapidetu eta espedientea tramitatzeko beharrezkoak diren gainontzeko zereginak burutuko ditu.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azkoitiako Udalak ondoko zereginak beteko ditu:

- 1.- Azkoitia Lantzen S.A.ri ahalik eta eperik motzenez pasako dio sarrera erregistroaren bitartez jasotako eskaera eta dokumentazioa.
- 2.- Azkoitia Lantzen S.A.-k eskatutako txosten teknikoak egingo dituzte Udaleko sailek 10 laneguneko epean.
- 3.- Egokitzat jotzen duenean, Azkoitia Lantzen S.A.-k egindako proposamenaren arabera ebazpena emango du.
- 4.- Azkoitia Lantzen, S.A.ri esleitu zaizkion egitekoen egikaritzan sortutako zalantzak argituko dizkio, eta aholkularitza tekniko eta juridikoa emango dio bere egitekoak behar den bezala burutu ditzan.

**HIRUGARRENA.-** Azkoitia Lantzen S.A.k ezingo ditu burutu funtzio publikoari dagozkion zereginak, edota udal zerbitzuei dagozkienak.

**LAUGARRENA.-** Hitzarmen honek ez du eragingo pertsonal berriaren kontratazioa udal baltzuan.

**BOSGARRENA.-** Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa izango da, erabakitzen den biharamunetik kontatzen hasita.

**SEIGARRENA.-** Hitzarmen honek ez dakar ez eskumenaren titulartasuna, ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea; horrelakoetan, Azkoitiko Udalaren ardura izango da egintza edo erabaki juridiko guztiak hartzea.

**ZAZPIGARRENA.-** Hitzarmen honen jarraipena eta interpretazioa aurrera eramateko bitariko batzordea sortuko da, alderdietako edozeinek hala eskatuz gero. Bitariko Batzordea osatuko dute Azkoitiako Udaleko bi kidek eta Azkoitia Lantzen S.A.ko administrazio kontseiluko bi kidek.

**ZORTZIGARRENA.-** Hitzarmen honen suntsiarazpena eta honen efektuak erregulatuko dira 40/2015 Legearen 51 eta hurrengo artikuluen arabera.”

**BIGARRENA.-** Alkate-Lehendakariari, ahalmena ematea hitzarmena izenpetzeko.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau Azkoitia Lantzen S.A.ri jakinaraztea, eta hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta *Gipuzkoa Irekian* argitaratzea.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azkoitian,  
**Batzordeko Idazkariak**

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Itziar Joaristi, Iraitz Otaño.

**ABSTENTZIOA:** Jose Joakin Etxaniz

Azkoitia, 2020ko maiatzaren 21a  
ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO IDAZKARIAK“

Idazkariak azaldu du gai hau, aurreko urteetan bezala eta araudi garantistena erabiliz, gehiengo absolutuz onartu beharreko gai bat bezala dagoela planteatuta. Gaia mahai ganean lagatzea proposatu du ondoren, kontuan hartuta bederatzi batzarkide besterik ez daudela, eta batzordean abstentzio bat egon zela ikusita, ez dela gehiengo absoluturik egongo.

Gaia mahai ganean lagatzea gehiengo sinplez onartu dezaketela esan du amaitzeko, eta ekaineko plenora eraman.

Ana Azkoitia andreak plenora bederatzi batzarkide etortzearen arrazoia puntu hau izan dela azaldu du, gehiengo absolutua behar dutela lehenago konturatu izan balira beste norbait ere etorriko zela, izan ere, batzordean bai EH Bilduko eta bai PSE-EEko ordezkariak baiezko bozka eman zuten, hau da, gehiengo absolutua lortzeko ez dutela inongo arazorik.

Jose Joakin Etxaniz jaunak beraien abstentzioari buruz dio, Azkoitia Lantzen gauzak aldatzen joango zela esan zelako izan dela. Azkoitia Lantzen bertan behera laga beharko litzateke beraien ustez, eta ez dela pausorik eman.

Ana Azkoitia andreak helburua hor dagoela esan dio, baina ez dela urtebeteko kontua.

Jose Joakin jaunak urte betean ez dutela pausorik eman esan du.

Ana Azkoitia andreak Kontseiluan ere ez daudela esan dio.

Iraitz Otaño jaunak erabateko babes juridikorik ez baldin badago, ez dutela arazorik gai hau atzeratzeko edo hurrengo plenoan bozkatzeko esan du.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Alkate Jk. informazioa Azkoitia Lantzenen barruan ematen dela esan dio Jose Joakin Etxaniz jaunari, eta desbinkulatuta daudela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak informazioa berari ematea erraza dela esan du, eta ez diotenez ezer esan, uste duela ez dela pausorik eman.

Gaia mahai gainean uzteko bozketaren emaitza honakoa izan da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Mari Jose Arregi Etxeberria, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga, Ane Miren Peña Larrañaga, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak gazteen alokairuak sustatzeko laguntzak izapidetzeko Azkoitiko Udala eta Azkoitia Lantzen, S.A.aren arteko hitzarmena onestearen gaia mahai gainean lagatzea aho batez erabaki du.

#### **4.- 2021 URTEKO AZKOITIKO UDALERRIKO TOKIKO JAIEGUNAK ZEHAZTEA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“PROPOSAMENA: 2021 EKITALDIAN LAN ONDORIOETARAKO, ORDAINDU EGINGO DIREN ETA BERRESKURATU BEHARKO EZ DIREN, AZKOITIKO UDALERRIKO TOKIKO BI JAIEGUNAK ZEHAZTEKOA**

#### **IKUSIRIK**

I.- Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 12. artikuluan eta Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.2 artikuluan ezarritakoa betez, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2021. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen maiatzaren 5eko 56/2020 Dekretua, 2020ko maiatzaren 8ko 86. zenbakiko EHAAan argitaratu zela, ondokoa xedatzen duelarik:

*1. artikulua.– Lan-ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoan, bi mila eta hogeita batgarren urtean, egun baliogabe, ordaindu beharreko eta ez-errekuperatzeko izango dira urteko igande guztiak eta honako jaiegun hauek:*

*Urtarrilaren 1a, Urteberri eguna.*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Urtarrilaren 6a, Errege eguna.

Martxoaren 19a, San Jose.

Apirilaren 1a, Ostegun Santua.

Apirilaren 2a, Ostiral Santua.

Apirilaren 5a, Pazko Astelehena.

Maiatzaren 1a, Langileen Eguna.

Urriaren 12a, Espainiako Jai Nazionala.

Azaroaren 1a, Domu Santu Eguna.

Abenduaren 6a, Konstituzio Eguna.

Abenduaren 8a, Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna.

Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

*2. artikulua.– 1.– Lan-ondorioetarako, izango dira, baita ere, egun baliogabe, ordaindu beharreko eta ez-errekuperatzeko, bi mila eta batgarren urtean, **tokian tokiko jaietako bi egun gehienez ere; egun horiek Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkariek zehaztuko dituzte, udaletako udalbatzek proposatuta, eta berdinak izan daitezke, edo ez, Lurralde Historiko bakoitzeko zenbait udalerritan.***

*2.– Udal bakoitzak bere proposamena egin eta dagokion lurralde-ordezkaritzari jakinarazi beharko dio hilabeteko epean, Dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.*

## KONTUAN HARTURIK

I.- Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2021. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duen maiatzaren 8ko 56/2020 Dekretuaren 1. artikulua, erakunde horri finkatzea dagozkion 12 jaiegunak – lan-ondorioetarako Euskal Autonomia Erkidegoan, ordaindu egingo direnak eta berreskuratu beharko ez direnak - finkatu dituela.

II.- Dekretuaren 2. artikulua, Lanaldia, lanaldi bereziak eta atsedenaldiak arautzen dituen uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuaren 46. artikulua xedaturikoa (*Serán también inhábiles para el trabajo retribuidos y no recuperables, hasta dos días de cada año natural con carácter de fiestas locales que por tradición le sean propias en cada municipio, determinándose por la autoridad laboral competente –a propuesta del Pleno del Ayuntamiento correspondiente– y publicándose en el «Boletín Oficial de la Comunidad Autónoma» y, en su caso, en el «Boletín Oficial» de la provincia.*), non udal bakoitzak, udalbatzek proposatuta, udalerriko bi jaiegun proposatu behar dituzten, Azkoitiko udalerrian **2021. urtean, uztailaren 31a – San Inazio Eguna,**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**Gipuzkoako lurralde historikoari dagokiona dena - eta azaroaren 30a – San Andres eguna – izatea proposatu dela.**

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako proposamen hau onartzea proposatu dio Antolakuntza Batzorde Informatiboak:

**PROPOSAMENA**

**LEHENA.- 2021 urtean Azkoitiko udalerriko tokiko bi jaiegunak, uztailaren 31a – San Inazio Eguna, Gipuzkoako lurralde historikorako proposaturikoa – eta azaroaren 30a – San Andres Eguna - izatea proposatzea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzari.**

**BIGARRENA.-** Ebazpen honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzari eta langileen ordezkari.

Azkoitian, 2020ko maiatzaren 11an.

Kontratazio eta Pertsonaleko A.O.T.-k

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz, Iraitz Otaño, Itziar Joaristi.”

Ana Azkoitia andreak puntu honetan betiko jai egunak ekarri direla adierazi du.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Betiko jai egunak direla kontuan harturik eta langileen oniritzia badago, guk ez dugu oztoporik jarriko.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Mari Jose Arregi Etxeberria, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga, Ane Miren Peña Larrañaga, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak 2021 urteko Azkoitiko udalerriko tokiko jaiegunak zehaztea onartzea aho batez erabaki du.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## **5.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ KREDITUAK ALDATZEKO AZKOITIKO UDALEKO 2 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

### **“ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN DIKTAMENA**

#### **1.- AURREKARIAK**

2020ko maiatzaren 15ean Alkatetza dekretu bitartez kreditu aldaketa kreditu gehigarria 2/2020 onartu da 2020 Foru Dekretu Arauak, maiatzaren 12koak, bigarren artikuluan dionaren arabera.

Foru Dekretu horren arabera hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko da; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da.

2020ko maiatzaren 15eko Alkatetza Dekretuaren testua honako hau da:

**JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA, AZKOITIKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUAK**, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko Legeko 21.1.f artikuluan xedatutakoaren arabera,

### **KONTUAN HARTURIK**

#### **1.- AURREKARIAK**

2020urteko Udal honen Aurrekontuaren barnean gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko izapidetzen den espedientea aztertu dugu.

Alkate Lehendakariak egindako proposamena eta txostenak, ziurtagiriak eta agiri horren gainerako jarduerak aztertu ondoren, kontuan hartuz adierazitako aldaketa aurrekontuaren garapena arintzeko mesedegarria izango dela eta expediente horren izapideketak aplikagarriak zaizkion legei egokitzen zaiela.

Honez gain, kontu-hartzaileak honako txosten hau egin du Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa

### **TXOSTENA**

#### **AZKOITIKO UDALA**

#### **KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA**

#### **KREDITU GEHIGARRIA 2/2020**





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

### ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa
- 2020rako aurrekontuak prestatzeko, onartzeko eta gauzatzeko Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko jarraibidea (2019ko azaroaren 14an argitaratuak GAO)
- 3/2020 Foru dekretu araua, maiatzaren 12koa, Udalak finantzatzeko foru funtsagatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen.

### ESKUMENA ETA PROZEDURA

Kreditu aldaketa espediente honen zioa da Covid 19aren ondorioz Azkoitiko merkataritzaren gainbeherari aurre egitea erabilpen bono batzuk sortuz herritarrek bertako merkataritza guneeetan erabili ditzaten.

3/2020 Foru Dekretu Arauak, maiatzaren 12koak, bigarren artikuluan dio Toki Erakundeetan, Covid 19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko direla, eta ez zaizkiela aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikokoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34.artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.

Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Osoko bilkurak ez baliozkotzeak ez du onartutako dekretu edo ebazpenaren deuseztapen edo etete ondorioz izango.

### AZTERTUTAKO TRAMITEA: KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA

- 1.- FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

### 1.1- ENTITATE ZERRENDA:

AZKOITIKO UDALA  
SAN JOSE EGOITZA  
ZUBIAURRE ELKARGUNE INSTITUTOA

### 1.2- HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA

#### Aurrekontuen egonkortasuna

Aurrekontu aldaketaren espedienteak **-2.057.207,62** euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera. Ondorio horretarako doiketa adierazgarria egin beharra dago, aurretik onarturiko kreditu aldaketak 2019ko Udaleko diruzaintzako gerakinarekin finantziatu baita aurreiazko txertaketak egiteko.

Doiketa honen zioa Diputatuen Kontseiluaren Akordioak, 2019ko azaroaren 14koa, Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2020rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko 1 erregelako azken atalean zehazturikoan dago. Bertan dio egonkortasun helburuaren ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordezkaria Komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Ondoren taula batean zehazten dira gerakinaren finantziakzioa.

KREDITU ALDAKETAK	Udalaren 2019ko aurrikusiriko gerakina
Kreditu txertaketa 1/2020	503.514,95
Kreditu txertaketa 2/2020	1.420.933,68
Kreditu gehigarria 1/2020 udala	10.000,00
Kreditu txertaketa Elkargune 1/2020	208.613,26
Kreditu gehigarria 2/2020 udala	20.000,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.163.061,89</b>

. Honegatik doiketa 2.163.061,89 €koa da eta ondorioz **espedienteak 105.418,67ko superabita** du. Kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

#### Finantzen iraunkortasuna

2020ko abenduaren 31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, 3.309.844,37€, 2019an likidatutako sarrera arrunten (15.802.667,16€) % 20,94 izango da. Kalkulua egiteko, 2019ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2020rako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2020rako aurreikusitako amortizazioak.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Zor biziaren zenbatekoan ez dira sartzen UFFFarengatik itzuli gabe gelditzen diren saldoak baina atal honetan ez da doiketarik egin.

2020rako ezarritako helburua magnitude hori %70 baino txikiagoa izatea da.

Hori dela eta, 2020ko Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak bete egiten du finantza iraunkortasunaren 2020rako helburua.

### Gastuaren araua

Une honetan ez da gastu arauaren azterketa egingo. Hau, 2020ko jarraibideen arabera, 2020ko aurrekontuaren likidazioa egitean egiaztatuko da.

### 1.3.- ONDORIOAK

2020ko Udaleko Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, kreditu gehigarriak 2/2020bete egiten du aurrekontu egonkortasunaren (gerakinaren doiketaren ondorioz), finantza iraunkortasunaren arloetan 2020rako ezarritako helburuak eta gastu araua ere.

Ondorioz 2020ko Aurrekontuaren aldaketaren espedienteak, kreditu gehigarria 2/2020 espedienteak, 2019ko azaroaren 14koa, Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko jarraibidea 2020rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko 1 erregelako azken atalean zehazturikoa betetz, hau da, egonkortasun helburuaren ez betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren orde 1/2013 Foru Arauaren 5. Artikuluaren hirugarren paragrafoan aurreikusitako Komunikazioa egin beharko zaiola Udalbatzari dio.

1 Erregelaren azken paragrafoak dio plan ekonomiko finantzario bat egiteko betebeharra zehazteko, apartatu honetan jarritako helburua bete izana 2020ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

Hau horrela izanik kontu hartzaile honek ez du une honetan entitatearen finantza iraunkortasunaren azterketa eta ebaluaketa egingo. Azterketa hau 2020ko aurrekontuaren likidazioa egitean egingo da, beti ere erregela honetan ezarritako helburua beteko ez balitz.

Azkoitian, 2020ko maiatzak 15ean  
Kontuhartzaileak

Honako hau

### EBATZI DUT

**LEHENENGOA:** Proposamenean zerrendatzen diren Azkoitiko Udalaren gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarria bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, 20.000,00 € zenbatekoa.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

SARRERENKONTZEP EDOTA GASTUEN PARTIDA	BALIABIDEENKONTZEPTUA	EGUNEKO KRETTUAK	SARRERA HALNDIAGO GASTU BAJAK	EEHINETIKO KRETTUAK
CONCEPTO DE INGRESOS O PARTIDA DE GASTOS	CONCEPTO DEL RECURSO	CREDITOS ACTUALES	MAYORES INGRESOS Y O BAJAS EN GASTOS	CREDITO DEFINITIVO
2 1000.870,000,00,01	Diruzairtzako gerakina gastu orokorretako/Remanente de Tesorería para gastos generales	1.810.924,74	20.000,00	1.830.924,74
	<b>SARRERA HALNDIAGOAK GUZTIRA/TOTAL MAYORES INGRESOS</b>	<b>1.810.924,74</b>	<b>20.000,00</b>	<b>1.830.924,74</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.810.924,74</b>	<b>20.000,00</b>	<b>1.830.924,74</b>

GASTUAK ETA KRETTU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA

PROPUESTA DE REALIZACIÓN DE GASTOS Y LA CORRESPONDIENTE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS

ALREKONTUKO PARTIDA PARTIDA PRESUPUESTARIA	IZENA DENOMINACIÓN	EGUNEKO KRETTUAK CREDITOS ACTUALES	GEHIGUNTZAK AUMENTOS	GUZTIRA TOTAL
8000,226,431,50,08	Merkataritza hairbat jarduera	20.000,00	20.000,00	40.000,00
	<b>GUZTIRA KAP4</b>	<b>20.000,00</b>	<b>20.000,00</b>	<b>40.000,00</b>
	<b>GUZTIRA</b>	<b>20.000,00</b>	<b>20.000,00</b>	<b>40.000,00</b>

**BIGARRENA:** 3/2020 Foru Dekretu Arauak, maiatzaren 12koak, bigarren artikuluan dionaren arabera, espediente honi ez zaizko aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikokoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34.artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.

Ebazpen hau hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko da; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da.

**HIRUGARRENA:** Behin Osoko Bilkurak baliozkotuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Azkoitia, 2020ko maiatzaren 15ean

ALKATEAK



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Nire aurrean  
IDAZKARIAK

### IRIZPENA

**LEHENA.-** 2020ko maiatzaren 15eko Alkatetza dekretua, kreditu aldaketa kreditu gehigarria 2/2020 onartzen duena, baliozkotzea.

**BIGARRENA.-** Behin Osoko Bilkurak baliozkotuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Azkoitia, 2020ko maiatzaren 21a  
ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO IDAZKARIAK

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Itziar Joaristi, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz.”

Ana Azkoitia andreak kreditu hau Alkate Dekretuz onartu zela adierazi du, eta ondoren Foru Aginduaren arabera plenoak onespena eman behar diola.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Emergentzia egoera honetan, herriko merkataritza arlo denak suspertzeko eginiko bonoak direla kontuan harturik eta aurretik batzordeetan eztabaidatzeko aukera izan dugunez, baiezkoa emango diogu, baina ez, pasa den Urritik, legealdi planaren zain gaudela gogorarazi gabe.”*

Ana Azkoitia andreak legealdi plana egin zegoela esan du; Covid-19ak dena txikitu duenez bigarrena egin beharko dutela, eta ez dakiela dio, ezohiko egoera honetan, ausartuko al diren legealdi plana egitera ere, Fondu Foralaren jetsiera kontuan hartuta. Azterketa sakona egin beharko dela dio eta Kontu-hartzailearekin lantzen ari direla.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Mari Jose Arregi Etxeberria, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga, Ane Miren Peña Larrañaga, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Udalbatza Osoak 2020 ekitaldiko 2 zenbakidun kreditu gehigarri bidez kreditu aldaketa hasieraz onartzea aho batez erabaki du.

**6.- KALE GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATUAREN 1. LUZAPENA ONESTEA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“ANTOLAKUNTZA BATZORDE INFORMATIBOAREN IRIZPENA**

**Ebazteko organoa:** Azkoitiko Udaleko Udalbatza-Plenoa  
**Gaia:** Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzuaren kontratuaren 1. luzapena  
**Esp. Zkia:** 2020COLU0002

**IKUSIRIK**

I.- Azkoitiko udaleko Udalbatza Plenoak 2015eko urriaren 28an egindako bilkuran, besteak beste, **Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzua** jardunbide ireki bidez esleitzeko kontratazio espedientea eta kontratazio jardunbideari hasiera ematea onartu zituen. Aldi berean, lizitaziorako oinarri gisa erabiliriko Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria – bere eranskinekin - eta gastuaren konpromisoa hartu eta fiskalizatzea onartzea erabaki zuen.

II.- Kontratazio-jardunbidea garatu ostean, Azkoitiko udaleko Udalbatza Plenoak 2016ko apirilaren 27 egindako bilkuran, besteak bestek, ondoko akordioak hartu zituen:

**“LEHENA.- “Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzua”, SERBITZU ELKARTEA, S.L. enpresari esleitzea.**

**BIGARRENA.- Kontratuaren urteko prezioa ondorengoia izatea: 720.229,83€ %10eko BEZa barne, horietatik 654.754,39€ printzipalari dagozkio eta 65.475,44€ %10eko BEZari.**

Zerbitzu hori, ondorengo aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko da:  
1.6000.227.163.00.01

Kontratuaren iraupena **LAU (4) URTEKOA** izatea, kontratu administratiboa sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Halaber, kontratuaren iraupena bi (2) urtez, urtez-urte, luzatu ahal izango da.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**HIRUGARRENA.-** *Esleipendunak Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren II. Eranskinean jasotako langileak hartzeko betebeharra du eta Gipuzkoako lurralde esparruan Bide Garbiketa Publikoa ematen duten langileei aplikagarria zaien hitzarmen kolektiboaren xedapenak errespetatu beharko ditu (2013ko uztailaren 26ko GAO n 142. zenbakian argitaratua).*

**LAUGARRENA.-** *Erabaki hau SERBITZU ELKARTEA, S.L. enpresa esleipendunari, gainontzeko lizitatuzaileei eta Kontu-hartzailetzako Departamentuari jakinaraztea.*

**BOSGARRENA.-** *Esleipendunari ohartaraztea, kontratazio honetan, kontratazio alorreko errekurtsio berezia tarteka daitekeenez, lizitatuzaileei esleipenaren jakinarazpena igortzen zaienetik zenbatzen hasita 15 egun balioduneko epea igaro arte, ezin izango duela kontratua formalizatu.*

*Epe hori igarota, kontratuaren formalizazioaren etetea dakarren errekurtsorik tartekatu ez bada, hori formalizatzeko errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita **gehenez bost (5) eguneko epean**, kontratua formalizatzeraz etor dadin Azkoitiko Udalera errekerituko zaiola eta ondorengo agiriak aurkezteaz batera:*

- *Jendaurreko publizitateko gastuen ordainagiria aurkeztea, hain zuzen, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko iragarkie dagozkienak. Esleipendunak hitzarmena sinatzerako garaian, iragarkien ordainketa egin duela egiaztatuko du, Azkoitiko Udaleko Kontuhartzailetz Sailean.*
- *Zerbitzuari atxikitako langile guztien lan kontratuen kopia.*
- *Antolakuntza prebentiboaren ereduaren ziurtagiria.*
- *Jardueraren arriskuen ebaluazioa.*

*Halaber, **kontratua formalizatzen denetik bi hilabeteko epean**, kontratistak honako agiriok aurkeztu beharko ditu:*

- *Bere lanpostuan aritzeko langileen mediku-gaitasunaren ziurtagiria.*
- *Langileek, egiten duten jarduerari buruzko beharrezko informazio eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.*
- *Langileen lanpostuen jardueretarako beharrezkoak diren Norbera Babesteko Ekipamenduen entrega ziurtagiria eta hauek erabiltzeko beharrezko informazio eta prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen ziurtagiria.*
- *Langileek sinaturiko dokumentua, enpresa kontratatzailean lanak garatzeko beharrezko informazio eta argibideak jaso dituztela egiaztatzen duena.*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**SEIGARRENA.-** Kontratua formalizatuz gero, iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 48 eguneko epean eta Udaleko kontratugilearen profilean.

**ZAZPIGARRENA.-** Behin kontratazio jardunbideari amaiera emanda, kontratu honen oinarritzko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.”

**III.-** Hori horrela, 2016ko ekainaren 1ean, Azkoitiko Udaleko Alkate-Udalburuak eta SERBITZU ELKARTEA, S.L. enpresako ordezkariak, “Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzua” esleitzea xede duen kontratua formalizatu zuten, data horretatik sortuz administrazio-eraginak.

**IV.-** Kontratuaren indarraldia, kontratuaren 3. klausulan xedatzen denaren arabera, lau urtekoa izaki, 2020ko maiatzaren 31ean amaitzen da.

Kontratuaren klausula berean eta kontratuaren parte diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren hirugarren klausulan ere, kontratuaren iraupena xedatzen duenean, urtez urte, bi (2) urtez luzatzeko aukera xedatzen du, gehienez ere sei (6) urtetarako, bi aldeen adostasuna baldin badago, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 303. artikulua xedaturikoarekin bat.

**V.-** 2020ko apirilaren 23ko datan – 1.450 Erregistroko sarrera zenbakiarekin -, SERBITZU ELKARTEA, S.L. enpresako ordezkariak, “Azkoitiko udalerrian kale garbiketa zerbitzua” xede duen 2016ko ekainaren 1eko datan izenpeturiko kontratua urtebetez luzatzeko eskaera aurkeztu du.

Kontratua luzatzeko kontratistak egindako eskaera aintzat hartuta, aipatu kontratuaren arduraduna den udaleko Ingurumen eta Zerbitzuetako teknikariak, arloko zinegotziaren oniritziarekin, egun berean emandako txostenean kontratua urtebetez luzatzeko proposamena egin du, ondokoaren arabera;

### **BULEGO TEKNIKOAREN TXOSTENA**

**2.1. GAIA:** Azkoitiko kale garbiketa zerbitzuaren zerbitzuaren kontratazioaren luzapena

**2.2. LEKUA:** Azkoitia

**ESKATZAILEA:**

**ZEHAZTAPIDETZA-EXPEDIENTE:** 78/2020





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**TXOSTENA-INFORME:**

**AURREKARIAK**

2016ko ekainaren 1ean sinaturiko kontratuaren bidez, Azkoitiko Udalak Udalerriko kale garbiketa zerbitzua, SERBITZU ELKARTEA S:L enpresari esleitu zion. Kontratuaren iraupena lau urtetakoa bada ere, bi urtez luzatu ahal izango da urtez urte.

- 2020ko apirilaren 23an SERBITZU ELKARTEA S:L enpresak Udalarekin sinatuta duen kontratua luzatzeko adostasuna adieraziz eskaera aurkeztu du (1450 sarrera zenbakia).

**KONTUAN HARTUTA**

-Zerbitzua ondo eramaten da orokorrean, kaleak txukun daude eta plegu teknikoak ezarritako baldintzak betetzen dira.

-Udalarekin komunikazioa ona da eta zerbitzua arazorik gabe moldatzen da sortzen diren ezbeharrei aurre egiteko.

**PROPOSATZEN DUT**

**-Serbitzu Elkarte S.L enpresari (IFZ.B20222410) Azkoitiko udalerriko kale garbiketa zerbitzua emateko kontratua urtebete luzatzea.**

**- Idazkaritzari txosten honen berri ematea**

*Honela jasota gera dadin eta behar den lekuan ondorio egokiak sor ditzan, txosten hau izenpetzen dut.*

*Azkoitian 2020ko apirilaren 23an*

*Amaia Argarate Olazar*

*Ingurumen Teknikaria*

**VI.-** Bestalde, luzapenaren inguruko ebazpena hartu ahal izateko, 2020ko ekitaldian zerbitzu hori finantzatzeko beharrezkoak diren diru-izendapenak badaudela eta 2021ko ekitaldiari dagokionean, beharrezkoak direnak egingo direla adierazi du Udalkontu-hartzaileak.

**KONTUAN HARTURIK**

Kontratazio arloko Administrazio Orokorreko Teknikariak, Udal-Idazkariak ontzat emanik, jarraian zehazten den lege txostena eman duela:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**“ARAUDI APLIKAGARRIA.-** Egun indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Lehen Xedapen Iragankorrak, 2. paragrafoan ondokoa xedatzen duela, aipatu Legea indarrean sartu aurretik esleitutako kontratuen inguruan: “2. Los contratos administrativos adjudicados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente Ley se regirán, en cuanto a sus efectos, cumplimiento y extinción, incluida su modificación, **duración y régimen de prórrogas, por la normativa anterior.**”

Hori horrela, beraz, luzapenaren jardunbideari aplikatuko zaion legedia **Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea** izango da.

**ARAUBIDE JURIDIKOA.-** Luzapenari dagokionean, bai Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 3. klausulak baita bi aldeek sinaturiko kontratuaren 3. klausulak ere, kontratuaren iraupena lau (4) urtekoa izango dela jasotzen du. **Bestalde, klausula berean, kontratu horren epea, urtez urte, bi (2) urtez luzatu ahal izango dela xedatzen du, berariaz eta bi aldeek adostasunarekin, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 303. artikulua xedaturikoari jarraiki.**

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 23. artikuluen 2. atalak honako hau xedatzen du:

*“2. El contrato podrá prever una o varias prórrogas siempre que sus características permanezcan inalterables durante el periodo de duración de éstas y que la concurrencia para su adjudicación haya sido realizada teniendo en cuenta la duración máxima del contrato, incluidos los periodos de prórroga.*

*La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el empresario, salvo que el contrato expresamente prevea lo contrario, sin que pueda producirse por el consentimiento tácito de las partes.”*

Luzatzea proposatu den kontratua beraz, **Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 23.2 artikulua eta bereziki zerbitzu kontratuen iraupena arautzen duen 303. artikulua xedaturikoa betez egingo da.**

Bestalde, kontuan izan behar da, kontratuaren luzapenak, prezioaren berrazterketa ekar badezake ere, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 7. klausulak eta bi aldeek izenpeturiko kontratuaren bosgarren klausulak xedaturikoaren arabera, hasiera batean, **kontratu honi ez dagokio prezioaren berrazterketarik**, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

*Dekretu Legegilaren 89. artikuluan (Espainiako Ekonomiaren Desindexazioaren inguruko martxoaren 30eko 2/2015 Legeak aldatuak) xedaturikoarekin bat.*

*Dena den, klausula berean, ondokoa xedatzen da: “eskulanaren kostuari loturiko lan arloko erabaki aldebakarra hartuz gero, eta horrek murrizten baditu kontratuari atxikitako langileen oinarrizko lan-baldintzak, kontratuaren prezioa ezartzeko oinarri izan zirenak, kudeaketa neurriak hartu beharko dira indarrean dauden kontratuen prezio berrikuspena kalkulatzeko, betiere Herri Administrazioen Kontratuen Erregelamenduak 97. artikuluan aurreikusitako izapideari jarraituz.” Ez da horrelakorik jakinarazi, beraz, ulertzen da kontratu honi ez dagokiola prezioaren berrazterketarik.*

*Guztia kontuan hartuta, bidezkoa da kontratuaren lehenengo luzapena formalizatzea, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako eta Udal-kontu-hartzaileak adierazitako baldintza ekonomikoetan eta prezioen berrikuspenaren inguruan adierazitakoa kontuan hartuta.*

**ORGANO ESKUDUNA.-** *Kontratu honen lehen luzapena onartzeko eskumena, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen II. Xedapen Gehigarriaren 2. atalak xedaturikoaren arabera, **Udalbatza Plenoarena** da, hori baita aipatu kontratuko kontratazio organoa.”*

Beraz, Antolakuntza Batzordeak ondoko irizpidearen onespena proposatzen dio Udalbatza Plenoari:

## IRIZPENA

**LEHENA.- AZKOITIKO UDALERRIKO KALE GARBIKETA ZERBITZUA xede duen kontratuaren iraupena urtebetez luzatzea,** Ingurumen teknikariak eta Udal-kontu-hartzaileak euren txostenetan adierazitako baldintzak kontuan hartuz.

**BIGARRENA.-** Kontratuaren luzapenaren **hileko prezioa 60.019,15€ %10eko BEZa barne** izango da, horietatik 54.562,86€ printzipalari dagozkio eta 5.456,29€ %10eko BEZari.

**HIRUGARRENA.-** Kontratuaren luzapenaren iraupena – urtebetekoa - **2020ko ekainaren 1etik 2021eko maiatzaren 31arte izatea.**

**LAUGARRENA.- SERBITZU ELKARTEA, S.L.** enpresari luzapenaren berri ematea eta errekeritzea gehienez 15 eguneko epean kontratuaren luzapena formalizatzerara bertaratu dadin.

**BOSGARRENA.-** Luzapenaren formalizazio iragarkia Azkoitiko Udaleko kontratugilearen profileen argitaratzea.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**SEIGARRENA.-** Erabaki honen berri Kontu-hartzailetzako Departamentuari ematea.

**ZAZPIGARRENA.-** Luzapen honen oinarrizko datuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari jakinaraztea.

Azkoitian, 2020ko maiatzaren 4an  
Batzordeko Idazkariak

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Jose Joakin Etxaniz

**ABSTENTZIOA:** Iraitz Otaño, Itziar Joaristi.”

Ana Azkoitiak kale garbiketa zerbitzuaren kontratuaren 1. luzapena gauzatzea proposatzen dela dio, 2020ko ekainaren 1etik 2021eko maiatzaren 31era hain zuzen.

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Honelako kasuetan eta esperientzia txarrik izan ezean ohi den bezala, alde bozkatuko dugu.*

*Bilduk, ezer arrazoitu gabe, batzordean abstentzioa eman zuela kontuan harturik, udal bilkuran ez badu arrazoitzen bozka horren zergatia galdetuko diogu, ea besteok ez dakigun zerbait dakiten eta horrela bada herritarrak jakitea ere komenigarri litzatekeelako.”*

Iraitz Otaño jaunak dio gestio publikoa nahiko luketela gai honetan ere.

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Mari Jose Arregi Etxeberria, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

**Abstentzioak:** Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga eta Ane Miren Peña Larrañaga.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beraz, Udalbatza Osoak Kale garbiketa zerbitzuaren kontratuaren 1. luzapena onartzea gehiengoz erabaki du.

**7.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUKO ERABILTZAILEEN EKARPEN EKONOMIKOA ZEHAZTEKO KALKULU SISTEMA ALDATZEA, ETA ONDORIOZKO ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETAREN ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA BATZORDEAREN IRIZPENA**

**GAIA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUKO ERABILTZAILEEN EKARPEN EKONOMIKOA ZEHAZTEKO ERABILTZEN DEN KALKULU SISTEMA ALDATZEKO PROPOSAMENA**

Aurrekariak

I.- Jendaurreko informaziorako legezko epea igaro ondoren eta erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez zenez, Azkoitiko udalerriko Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua arautzen duen araudiaren aldaketa behin betikoz onartu zen 2018ko urtarrilaren 25ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (18. zenbakia). Araudi horrek 2006. urtean onartutako araudia aldatzea eragin zuen.

II.- Araudi horretaz gain, Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuko erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa zehazteko kalkulu sistema ere aldatu zen. Berau onartu zen, 2018. urterako, 2018ko maiatzaren 3an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 84. zenbakian.

2019. eta 2020. urteko Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuko tasak arestian aipatutako kalkulu sistema izan dute ardatz, nahiz eta aldaketa txiki batzuk egin izan diren.

Kontuan hartuta

I.- 2 urte pasa dira, jada, indarrean sartu zenetik Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua arautzen duen egungo ordenantza, baita erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa zehazteko azken urteetan jarraitu den kalkulu ekonomikoa.

II.- Aipatutako ekarpen ekonomiko hori ezarri zenetik, Gizarte Ongizate Saileko gizarte langileek kalkulu ekonomikoaren inguruan bai eskatzaileek bai eskatzaile potentzialiek bai gizarte langileek propio jasotako ondorioak honakoak dira:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Zerbitzua jaso dezaketen herritar askok zerbitzua ez eskatzea erabakitzen dute koste ekonomikoa handiegia dela iritzita.
- Nahiz eta errenta txikia eduki, bizitza guztiko aurrezkiak edukitzearen, 25.816,32 euro baino gehiago (2020. urteko kalkulu sistemaren arabera), zerbitzuaren orduko prezioa 13 euro ordaintzea dagokien azkoitiar asko egon da azken bi urtetan, eta horietako askok uko egin diote eskaerari edo informazioa jaso ondoren eskaera ez egitea. Adibidez, hilean 20 orduko zerbitzua edukiz gero (astegunetan ordu bat), hilean 260 euro ordaintzea dagokio bere diru-sarrerak hilean 680 euro eta 900 euro bitartean direnean.

III.- Eudelek, Euskadiko Udalen Elkartek, 2018. urtean Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua arautzeko zirriborroa prestatu eta udalen esku utzi zuen, baita erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren kalkulu sistema ere.

### Ikusirik

I.- Gaur egun zerbitzuaren onuradunen ekarpen ekonomikoa zehazteko, honako jarraibideak jarraitzen dira errenta eta patrimonio aldetik:

1) Pertsona onuradunak edo onuradunek duten **ondasunen arabera**:

Onuradunak	14€ ordua	13€ ordua	12€ > ordua
1	> LGS <sup>1</sup> urtekoa *4	LGS urtekoa *4 - (EAEAP <sup>2</sup> hilekoa *12)*4	< (EAEAP hilekoa *12)*4
2	> LGS anual *8	LGS anual *8 - (EAEAP hilekoa *12)*8	< (EAEAP hilekoa *12)*8
3	> LGS anual *12	LGS anual *12 - (EAEAP hilekoa *12)*12	< (EAEAP hilekoa *12)*12
> 4	> LGS anual *16	LGS anual *16 - (EAEAP hilekoa *12)*16	< (EAEAP hilekoa *12)*16

2) Aurreko ataleko onuradunen ondasun taulan 12€ edo gutxiago ordaintzea badagokio, beraien **errentaren arabera** ezarriko da ordaintzea dagokien zerbitzuaren orduko prezioaren ehunekoa, hau da, 20,61 € orduko prezioa hain zuzen.

EKARPENA EHUNEKOA %	SARRERAK
1,5%	EAEAP % 110 arte
4%	EAEAP % 111-115
8%	EAEAP % 116-125
15%	EAEAP % 126-150
24%	EAEAP % 151-175
35%	EAEAP % 176-200
48%	EAEAP % 201-225
59% (12€ ordua)	EAEAP % 226-250
59% (12€ ordua)	> EAEAP % 251

3) **Erabilera libreko kopurua** bermatuko da, soilik, 2) puntuan jasotzen den irizpideak aplikatzen zaien onuradunei, eta beraz, ondorengo erabilera libreko kopurua bermatuko da onuradunen kopuruaren arabera:

Bizikide Unitateko kideak	Bermatuko %
1	EAEAP % 115
2	EAEAP % 150
3	EAEAP % 180
4	EAEAP % 210
5	EAEAP % 240

<sup>1</sup> Lanbide arteko Gutxiengo Soldata (LGS)

<sup>2</sup> Erabilera Askotariko Errenta Adierazle Publikoa (EAEAP)



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**II.- Eudeletik proposatutako Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuko kalkulu ekonomikoak jarraian zehazten diren xehetasunak jasotzen ditu:**

**4.-Ekarpenen koadroa**

Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena:

Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadro honen arabera zehaztuko da:

<b>EAEAP sarrerak</b>	<b>LGS sarrerak</b>	<b>Ekarpena</b>
EAEAPren ≤%120	LGSren ≤%75	%1,5
>%120-125	>%75-78	%4
>%125-130	>%78-81	%8
>%130-150	>%81-94	%15
>%150-175	>%94-110	%24
>%175-200	>%110-125	%35
>%200-225	>%125-140	%48
>%225-250	>%140-155	%61
>%250-275	>%155-170	%74
>%275-300	>%170-190	%87
EAEAPren >%300	LAGSren >%190	%100

**5.-Ondarea zenbatzea**

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira. Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

<b>Kide kopurua</b>	<b>Gehienezko ondarea</b>
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

**6.- Libreki erabiltzeko zenbatekoa**

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da EAEAPren %XXri dagokion zenbatekoa. Baldin eta familia edo bizikidetzaren unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, EAEAPren %XX gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta EAEAPren %XX gainerako kideetako bakoitzagatik.

**III.- Eudeletik bidalitako proposamenean erabiltzailearen ekarpena zehazterako garaian aukeratu behar da EAEAP edo LGSko indizea, baina bata edo bestea aukeratzean hainbat kontu aintzat hartu behar dira. Batetik, ekonomikoa, LGS indizea malguagoa da orokorrean. Bestetik, iraganean erabili izan den indizea beti izan da EAEAP, beraz, LGS indizea erabiltzeak iraganeko eta etorkizuneko onuradunen ekarpen ekonomikoaren arteko aldea areagotuko luke. Beti ere, kontuan hartuta gaur egun onuradunak diren erabiltzaileei ekarpen ekonomiko berria zehazteko sistema aplikatzeak ez liekeela komeniko; batik bat, gaur erabiltzen diren zenbait kontzeptu ez zirelako iraganean begiratzen, esaterako, patrimonia.**

Aipatutako indize horretaz gain, **erabileraren librerako onuradunari bermatuko litzaiokeen diru kopurua** finkatu behar da kide bakarra izan, bi kide izan edo hiru kide edo gehiago izan.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Zenbateko hori erabakitzerako garaian, oinarri gisa hartu daiteke Diru Sarrerak Bermatzeko Errentan pentsionistek jasotzen duten kopurua bizikidetza unitateko kide kopuruaren arabera; edo, Gizarte Larrialdiko Laguntzak zehazterako garaian erabiltzen diren urteko diru-sarrera muga bizikidetza unitateko kideen arabera pentsionisten kasuak. Ondorengoak dira datuak 2020. urtean:

Kide kopurua	DSBE kopurua (12 ordainketa)	EAEAP kopurua (12 ordainketa)
1	798,95 €	% 148
2	994,94 €	% 185
3 edo gehiago	1.074,53 €	% 199,8

Kide kopurua	GLL hileko diru-sarrera muga (12 ordainketa)	EAEAP kopurua (12 ordainketa)
1	855,86 €	% 160
2	1.069,83 €	% 200
3 edo gehiago	1.155,41 €	% 214

Aipatu behar da gaur egun goian zehaztutako Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentak %7ko murrizketa aplikatua duela. Halere, hori aplikatuko balitz erabilera librerako kopuru gisa, lehenengo 4 tarteetan dauden kide bakarrek bizikidetza unitateei gehiengo prezioaren %1,5 aplikatu beharko zitzaizkien; ez, ordea, ordea, 2. tarteetan %4, 3. tarteetan %8 eta 4. tarteetan %15. Antzerako zerbait geratuko litzateke Gizarte Larrialdiko Laguntzen pentsionisten hileko diru-sarrera muga erabilera librerako kopuruak bezala erabiliko balitza. Kasu honetan, ekarpen koadroko lehenengo 5 tarteetan egongo liratekeen kide bakarrek onuradunek gehiengo kuotaren %1,5 aplikatu beharko zitzaizkien; eta, ez, ordea, 2. tarteetan %4, 3. tarteetan %8, 4. tarteetan %15 eta 5. tarteetako zati batean %24.

Azkenik, garrantzitsua da **portzentaje horien atzean ezkutatzen diren kopuruak** jakitea, aintzat hartuta erabiltzaileen orduko gehiengo ekarpena 14 eurokoa izango dela.

EAEAP sarrerak	Kopuruak	Ekarpena	Orduko prezioa
EAEAPren ≤%120	645,40 €	%1,5	0,21 €
>%120-125	645,40 € - 672,30 €	%4	0,53 €
>%125-130	672,30 € - 699,20 €	%8	1,12 €
>%130-150	699,20 € - 806,76 €	%15	2,10 €
>%150-175	806,76 € - 941,22 €	%24	3,36 €
>%175-200	941,22 € - 1.075,68 €	%35	4,90 €
>%200-225	1.075,68 € - 1.210,14 €	%48	6,72 €
>%225-250	1.210,14 € - 1.344,60 €	%61	8,54 €
>%250-275	1.344,60 € - 1.479,06 €	%74	10,36 €
>%275-300	1.479,06 € - 1.613,52 €	%87	12,18 €
EAEAPren >%300	1.613,52 €	%100	14,00 €

Egoera horren aurrean, honako proposamena egiten da erabilera librerako:

Kide kopurua	EAEAP	Kopurua
--------------	-------	---------





**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

1	% 130	699,20 €
2	% 45 (175)	941,22 €
3 edo gehiago	% 25 (200)	1.075,88 €

Proposamen horrek esan nahi du ekarpen koadroko 1, 2 eta 3 tarteetan daudenek gehiago kuotaren %1,5 ordainduko luketela. Hileko 699,19 euroko diru-sarrerak baino gutxiago edukiko lukeen bizikidetzaren unitate bakarreko onuradunak 0,21 euro ordainduko lukeela orduko, alegia.

**IV.-** Aurretiko ataletan zehaztutakoa aintzat hartuta, Gizarte Ongizate sailetik erabaki zen 2019. urtean Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua eskatu zuten erabiltzaileei aplikatu zitzaizkien kalkulu ekonomikoaren alderatzea Eudelek proposatutako kalkulu ekonomikoarekin, baina baremo bezala hartuta Erabilera Askotariko Errenta Adierazle Publikoa (EAEAP) eta azkeneko taula horretan zehaztutako erabilera libreko kopuruarekin.

Hori kontuan hartuta, jarraian aipatzen den taula eta ondorioak atera daitezke:

Zkia.	Berria	EUDEL	UDALA		orduak	1.	2.	3.	4.	Berria	EUDEL	UDALA
1	14	14	14		150	0,0	27,0	60,0	63,0	2100,0	2100,00	2100,00
2	8,54	8,54	13		159,5	1,5	36,0	30,5	91,5	1362,1	1362,13	2073,50
3	0,21	0,21	13	UKO	1,5	0,0	1,5	0,0	0,0	0,3	0,32	19,50
4	14	14	14		264	80,0	122,0	62,0	0,0	3696,0	3696,00	3696,00
5	2,1	0,21	3,09	UKO	0							
6	0,21	0,21	0,31		52,5	0,0	0,0	0,0	52,5	11,0	11,03	16,28
7	6,72	6,72	9,89		22	0,0	22,0	0,0	0,0	147,8	147,84	217,58
8	14	14	14		7	0,0	0,0	0,0	7,0	98,0	98,00	98,00
9	14	14	14	UKO	0							
10	0,21	0,21	0,31		630	26,5	195,5	205,5	202,5	132,3	132,30	195,30
11	2,1	0,21	3,09		12,5	0,0	0,0	12,5	0,0	26,3	2,63	38,63
12	8,54	8,54	12,16		50	0,0	12,0	16,0	22,0	427,0	427,00	608,00
13	4,9	4,9	7,21		110	0,0	0,0	47,0	63,0	539,0	539,00	793,10
14	14	14	14		79	0,0	0,0	20,0	59,0	1106,0	1106,00	1106,00
15	14	14	14		58	0,0	0,0	34,0	24,0	812,0	812,00	812,00
16	14	14	14	UKO	0					0,0		
17	14	14	14		127,5	0,0	0,0	7,0	120,5	1785,0	1785,00	1785,00
18	14	14	14		6	0,0	0,0	6,0	0,0	84,0	84,00	84,00
19	1,12	0,21	3,09		64	0,0	0,0	9,0	55,0	71,7	13,44	197,76
20	0,21	0,21	3,09		0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,00	0,00
21	2,1	0,21	4,95		89,5	0,0	36,0	45,5	8,0	188,0	18,80	443,03
22	14	14	14	UKO								
23	6,72	6,72	13	UKO								
24	14	14	14	UKO								
25	14	14	14	UKO								
26	6,72	6,72	13	UKO								
					1883,0					12.586,49	12.335,47	14.283,67

Taula aztertuta, honako ondorioak atera daitezke:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Eskaera egitea erabaki zuten 26 eskatzaileetatik 9k uko egin zuten orduko prezioa 14 edo 13 euro zirelako. Baina, Eudeleko kalkulua aplikatuko balitz, 4 eskatzaileri orduko prezioa nabarmen jaitsiko zitzaien.
- Uko egindako gainontzeko 5ek, berriz, 14 euroko prezioa edukitzen jarraituko lukete bigarren etxebizitza bat edo aurrezki handiak edukitzeagatik.
- 2019. urtean EELZ eskatu eta zerbitzua eman zitzaien %61k zerbitzuagatik ordaintzen duen orduko prezioa jaitsiko zitzaion Eudeleko kalkulu sistema aplikatuko balitz (11 eskari).
- Eudelen kalkulu ekonomikoa aplikatzeak ez lieke onurarik ekarriko 7 eskatzaileri, eta horiek izango lirateke udalak zehaztutako orduko gehieneko prezioa ordainduko luketenak errenta altua, aurrezki handiak edo bestelako ondasunak edukitzeagatik.
- 2019. urtean zerbitzua eskatu zuten erabiltzaileek ordaindu beharko luketena alderatuta Eudeleko kalkulua egokituarekin, ekarriko luke udalak 1.697,18 eurokoa diru-sarrera gutxiago edukitzea eszenatoki horretan.

V.- Martxoren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera ezarri zuen Espainiako lurralde osoan, Covid-19k eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko. Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak dio:

- *Se suspenden términos y se interrumpen los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público. El cómputo de los plazos se reanudará en el momento en que pierda vigencia el presente real decreto o, en su caso, las prórrogas del mismo. (...) se aplicará a todo el sector público definido en la Ley39/2015, de1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

Dena dela, dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. atalak jasotzen du: *Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, desde la entrada en vigor del presente real decreto, las entidades del sector público podrán acordar motivadamente la continuación de aquellos procedimientos administrativos que vengán referidos a situaciones estrechamente vinculadas a los hechos justificativos del estado de alarma, o que sean indispensables para la protección del interés general o para el funcionamiento básico de los servicios.*

Horiek horrela, beraz, hots, administrazio prozedurak etenda egonik herritarren interes orokorra bermatzeko eta zerbitzuaren oinarritzko funtzionamendurako prozedurek aurrera jarraitu dezakete dagokion argudioak plazaratuta.

Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuko erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa zehazteko erabiltzen den kalkulu sistema aldatzeak arestian aipatzen den Martxoren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak hirugarren xedapen gehigarriko 4 atalak jasotzen duen interes orokorra babeste du, honakoak dira argudioak:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1. COVID-19 izurritearen ondorioz sortutako larrialdiko egoera honek gehien kaltetu dituen herritarrak dira 65 urtetik gorakoak; eta, Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuko erabiltzaileen gehiengoa mendekotasun edota zaurgarritasun egoeran dauden adineko pertsonak.
2. COVID-19 izurritearen ondorioz sortutako larrialdiko egoeran Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuan alta berriak egon dira, baina larrialdi egoera amaitzean are eskaera gehiago egotea aurreikusi daiteke. IV. Atalean jasotako argudioetara erreparatuta, kalkulu sistema aldatzeak zerbitzua behar duten herritar gutxiagok uko egitea ahalbidetu dezake; eta, beraz, babes gehiago eskainiko dio Udalak mendekotasun edo zaurgarritasun egoeran dauden herritarrei.

Proposamena

**LEHENA:** Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuko erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa zehazteko kalkulu sistema aldatzea.

**BIGARRENA:** Honakoa kalkulu ekonomikoa onartzea.

**Ekarpenen koadroa**

Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena:

Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadro honen arabera zehaztuko da:

<b>EAEAP sarrerak</b>	<b>Ekarpena</b>
EAEAPren ≤%120	%1,5
>%120-125	%4
>%125-130	%8
>%130-150	%15
>%150-175	%24
>%175-200	%35
>%200-225	%48
>%225-250	%61
>%250-275	%74
>%275-300	%87
EAEAPren >%300	%100

**Ondarea zenbatzea**

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

<b>Kide kopurua</b>	<b>Gehienezko ondarea</b>
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

**Libreki erabiltzeko zenbatekoa**

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da pertsona batentzako EAEAPren %130. Baldin eta familia edo bizikidetzaren unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, EAEAPren %45 gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta EAEAPren %25 gainerako kideetako bakoitzagatik.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kide kopurua	EAEAP
1	% 130
2	% 45
3 edo gehiago	% 25

Ondoren, aurreikusitako etxeko laguntza zerbitzuko ordu kopuruaren arabera erabiltzaileak hilean egingo duen diru ekarpena kalkulatu da eta bermatutako librei erabiltzeko zenbatekoa aplikatu da.

Aurreko ariketa egin ondoren ez bada libreak erabiltzeko diru kopurua bermatzen, ordaindu beharreko kopurua egokituko da libre erabiltzeko zehaztutako kopurua bermatu arte.

Nolanahi ere, erabiltzaileak Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren orduko prezioaren %1,5 gutxienez ordaindu beharko du eta gehienez 14 euro ordua.

**HIRUGARRENA:** Kalkulu sistema berria onartu bezain pronto indarrean sartzea.

Aurreko guztia kontuan izanda, organo eskuduna den Udalbatza Plenoari honako irizpen hau onartzea proposatu dio Batzordeak:

### IRIZPENA

**LEHENA.-** Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuko erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa zehazteko erabiltzen den kalkulu sistema aldatzea.

**BIGARRENA.-** Ordenantza fiskalak aldatzea Martxoren 14ko 463/2020 Errege dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria aintzat hartuta.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek Udaletxeko iragarki taulan eta Azkoitiko Udalaren web-orrian argitaratzea.

Azkoitian, 2020ko maiatzaren 08an.

Iñaki Lasa Palacios  
Gizarte batzordeko idazkaria

### ERANSKINA



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Zerbitzuaren orduko prezioa **20,61 €**
- Ekarpén ekonomikoa orduka egingo da. Orduko gehiengo prezioa **14€**koa izango da.
- Onuradunaren ekarpén ekonomiko ahalmen ekonomikoaren arabera finkatuko da: hurrenez hurren, ondarea eta errenta, baina kontuan edukita erabilera libreko kopurua.
- **Nolanahi ere**, erabiltzaileak Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuaren orduko gehiengo prezioaren (14€) prezioaren **%1,5 gutxienez ordaindu** beharko du.

1) Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarpén honako **ekarpén koadro** honen arabera zehaztuko da:

<b>EAEAP sarrerak</b>	<b>Ekarpén</b>
EAEAPren ≤%120	%1,5
>%120-125	%4
>%125-130	%8
>%130-150	%15
>%150-175	%24
>%175-200	%35
>%200-225	%48
>%225-250	%61
>%250-275	%74
>%275-300	%87
EAEAPren >%300	%100

2) Pertsona onuradunak edo onuradunek duten **ondasunen arabera**:

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

<b>Kide kopurua</b>	<b>Gehienezko ondarea</b>
1	50.000.-€
2	70.000.-€
3 edo gehiago	85.000.-€

3) Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da pertsona batentzako EAEAPren **%130**. Baldin eta familia edo bizikidetzat unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, EAEAPren **%45** gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta EAEAPren **%25** gainerako kideetako bakoitzagatik.

<b>Kide kopurua</b>	<b>EAEAP sarrerak</b>
1	% 130
2	% 45
3 edo gehiago	% 25



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Ondoren, aurreikusitako etxeko laguntza zerbitzuko ordu kopuruaren arabera erabiltzaileak hilean egingo duen diru ekarpena kalkulatu da eta bermatutako librei erabiltzeko zenbatekoa aplikatu da.

Aurreko ariketa egin ondoren ez bada libreaki erabiltzeko diru kopurua bermatzen, ordaindu beharreko kopurua egokituko da libre erabiltzeko zehaztutako kopurua bermatu arte.

### **Onuradunaren ahalmen ekonomikoa zehazteko erabiliko diren elementuak**

Ahalmen ekonomikoa honako balioztatze elementu hauen bidez kalkulatu da: ondarea, errenta eta onuradun kopurua, beti ere bermatuz erabilera librerako kopurua.

#### 1) Ondarea

1- Onuradunaren ahalmen ekonomikoa zehazteko, ondareztat hartuko da: onuradunen higiezin eta higigarrien kapital osoa, eskaera egin aurreko 2 urteak kontuan hartuta baloratua, saldu den higiezin kapitala izan ezik, errendimendu ekonomikoa higigarrien kapitalean jada sartua dagoenean.

- Kapital higigarritzat jotzen dira: kontu korranteetako eta epe jakinerako kontuetako gordailuak; inbertsio funtsak eta pentsio funtsak; balore higigarriak; arte objektuak, antigoaleko gauzak eta bestelako objektu baliotsuak.
- Kapital higiezinat jotzen dira landa nahiz hiri izaerako ondasunak, ohiko etxebizitza kontatu gabe (garajea eta trastelekua barne). Era berean, higiezin ondarea ez da kontatuko titularitatea % 50 baino gutxiago denean.

2.- Ondare salbuetsizat joko dira onuradunen ahalmen ekonomikoa zehazterako garaian ondorengoak:

Ohiko etxebizitza, balio aparta duenean izan ezik. Balio aparta duela ulertuko da etxebizitzaren balio katastrala handiagoa denean Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2006ko maiatzaren 15eko Aginduak, prestazio ekonomikoak emateko gehieneko balio katalak ezartzen dituenak, edo agindu hori ordeztzen duen araudiak, finkatutako balioak baino, zerbitzuen koordainketarako beste gehieneko baliorik ezartzen ez den bitartean; kasu horietan, ondare gisa konputatuko da balio katastrala gainditzen duen zatia, ezarritako mugak kontuan izanda.

Alde horretatik, ohiko etxebizitzaren kontzeptuan sartuko dira, etxebizitzaz gain, garajea eta trastelekua, horrelakorik dagoenean, baldin eta etxebizitza dagoen eraikin berean edo inguruko batean baldin badaude. Ohiko etxebizitza landatarra denean, ohiko etxebizitzaren kontzeptuan sartuko da erantsitako partzela landatarra ere, desagregatuta ez bada.

Ohiko etxebizitzat hartuko da ere bai erabiltzailea garai bateko bere ohiko bizilekua ez den beste etxe batean bizi bada, eta, beraz, ondare baloraziotik kanpo geratuko da, beti ere ondoko 3 baldintza hauek betetzen badira:

- Utzi duen etxebizitza bere ohiko etxebizitza izatea 3 urtean gutxienez.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Etxebizitza batetik bestera aldatzeko arrazoia eskatzailearen mendekotasuna edo autonomiarik eza izatea.
- Etxebizitza berrian bere mendekotasunarentzako laguntzak izatea, hau da, beste norbaitekin bizi izatera joatea, edo etxe aldaketa barrera arkitektonikoak gainditzeko egitea.

Onuradunen ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak errentan emateagatik lortzen diren kapital higiezinaren etekin garbien %40 ere salbuetsita geratuko da, beti ere etxebizitza hori Azkoitian badago. Hori horrela, etxebizitza hori ondaretik salbuetsita egongo da eta, soilik, errentaren %60 kontuan hartuko da errenta legez.

## 2) Errenta

1- Onuradunaren ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, errenta edo sarrera konputagarriak izango dira elkarbizitzako unitateak lanaren eta kapitalen ondorioz urtero lortzen dituen etekinak eta eskubideak eta beste bide batzuetatik lor ditzakeen guztiak; zehazki:

- a) Funtz publiko nahiz pribatuen kargura jasotzen diren pentsioak eta prestazio ekonomikoak. Jasotzen diren sarrera garbiak konputatuko dira. Hor sartuko dira elkarbizitza unitateko edozein kide subjektu kausatzaile duten pentsio, subsidio, prestazio ekonomiko nahiz bestelako eskubide ekonomiko guztiak.
- b) Norberaren nahiz inoren konturako lanetik lortutako etekinak. Jasotzen diren sarrera garbiak konputatuko dira.
- c) Kapital higigarri nahiz higiezinaren etekin garbiak.
- d) Sariak eta aparteko sarrerak. Aparteko sarreratzat hartuko dira jaraunspenak eta legatuak, dohaintzak, ondarea saltzean sortutako baliabideak eta aurreko apartatuetan aipatu ez diren bestelako sarrera guztiak, erregulariki jasotzen ez badira eta salbuespen gisa lortu badira. Sarrera horiek, ondare gisa baloratu ez badira, sortzapenaren ondorengo 5 urteetan konputatuko dira.
- e) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako edo antzeko prebisio planetako edo aseguru kolektiboko kontratuetako edo bestelako aseguru kontratuetako eduki ekonomikoko eskubideengatik urtean lortutako sarrerak, eskubide horiek ez baldin badira ondare gisa baloratu.

Oro har, errenta zenbatzeko ekitaldia zerbitzua eskatu eta aurreko urteko ekitaldia izango da. Hala ere, kasu hauetan zerbitzua eskatu den ekitaldia izango da errenta kalkulatzeko ekitaldi: a) letrako sarrerak eta b) letrako besteren konturako lan etekinak.

Aurreko a) letraren ondorioetarako, sarrera garbia izango da sarrera gordinak ken Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren gastu kengarriak eta atxikipenak.

2- Alde batetik, sarrera edo errenta salbuetsizat joko dira erabiltzailearen edo erabiltzaileen errenta hauek:

- Gizarte Larrialdiko Laguntzak eta Etxebizitzarako prestazio Osagarria (2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoak, arautuak), etxebizitza osagarria Kotizazio Gabeko Pentsioen titularrentzat, eta Etxebizitzari buruzko Legetik etor daitezkeen laguntzak.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- 2006ko azaroaren 14ko 39/2006 Legean, Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko eta Arreta ematekoan, jasotako prestazio ekonomikoak.
- Norberaren kargurako 18 urtetik beherako seme-alabengatik ematen diren prestazio ekonomikoak.
- Hezkuntza edo prestakuntzarako beka.
- Jantokiko eta garraioko beka.
- Laguntzako produktuak eta ingurune fisikora egokitzekoak eskuratzeko emandako diru laguntza publikoak.
- Ohiko etxebizitza eskuratzeko edo errehabilitatzeko emandako laguntzak.
- Desgaitasuna dutenentzako mugikortasunerako eta garraio gastuetarako subsidioa.
- Arrisku egoeran dauden pertsonak gizartean integratzeko ematen diren helburu jakineko laguntzak.
- Babesgabezia dauden adingabeak harreraren hartzeko laguntzak.
- Genero indarkeriaren biktime diren pertsonentzako prestazio ekonomikoak.
- Zentro okupazional batera joateagatik lortutako ordainsariak.
- Ohiko etxebizitzaren gaineko alderantzizko hipotekengatik lortutako kuota

Bestalde, guztizko diru-sarreretatik kenduko dira, honako hauek:

- Konpentsazio pentsioen ordainketa bereizketagatik edo/eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriengatik, halakorik badago, epai judizialaren arabera.
- Zerbitzuak aldi berean erabiltzeagatik egiten diren ekarpenak: erabiltzailea aldi berean laguntza moduko edo izaera okupazionalako beste gizarte zerbitzu baten (eguneko zentroa, tailer okupazionalak edo beste zerbitzu batzuk...) onuraduna denean, dagokion zerbitzuan ordaindu beharreko ekarpen osoa kenduko da diru sarreretatik.
- Onuradunen ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak errentan emateagatik lortzen diren kapital higiezinaren etekin garbien %40 ere salbuetsita geratuko da, beti ere etxebizitza hori Azkoitian badago.
- Ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzeko edo amortizazio kreditua ordaintzeko bideratutako kopurua.
- Lehengo ohiko etxebizitza batetik eskuratzen den alokairua, etxebizitza hori arkitektura oztopoak izateagatik edo gorabehera bereziengatik (indarkeriaren biktime diren emakumeak ...) utzi behar izan denean, eta beste etxebizitza bat izateko alokairu edo kreditu gastuei aurre egin behar zaienean (beste etxebizitzaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen zatian).

### 3) Onuradun kopurua zehaztea

Onuradunen kopurua zehaztuko da bizikidetzaren unitateko kideen arabera; hots, ohiko etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak kontuan hartuko dira, beti ere 3. maila arteko ahaidetasuna edo afinitatea dutenak.

Dena dela, zerbitzu motaren arabera, honela kontabilizatzen dira onuradunaren edo onuradunen ondarea eta errenta:

- Etxeko Laguntzako eginkizunak (Azkoitiko Udalerriko etxez etxe zerbitzua arautzen duen araudia: G.A.O. 2018/01/25an argitaratua: 6.1.1. artikulua):





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Bizikidetzaren unitateko kide guztien diru kapital higiezia eta higigarria eta per capita sarrera garbiak.

- Etxeko Laguntzako eginkizunak (Azkoitiko Udalerriko etxez etxeko zerbitzua arautzen duen araudia: G.A.O. 2018/01/25an argitaratua: 6.1.1. artikulua) eta Laguntza pertsonaleko eginkizunak (6.1.2. artikulua): Bizikidetzaren unitateko kide guztien diru kapital higiezia eta higigarria eta per capita sarrera garbiak.
- Laguntza pertsonaleko eginkizunak (Azkoitiko Udalerriko etxez etxeko zerbitzua arautzen duen araudia: G.A.O. 2018/01/25an argitaratua: 6.1.2. artikulua) edo/eta Laguntza sozio-komunitarioko eginkizunak (Azkoitiko Udalerriko etxez etxeko zerbitzua arautzen duen araudia: G.A.O. 2018/01/25an argitaratua: 6.1.3. artikulua): Onuradunaren kapital higiezia eta higigarria eta per capita sarrerak. Ezkontzetan edo izatezko bikoteetan, bi pertsonen ondarea batu eta zati bi egiten da, eta zati bat bakarrik hartzen da kontuan.
- Arnasaldiko modalitateko eginkizunak (Azkoitiko Udalerriko etxez etxeko zerbitzua arautzen duen araudia: G.A.O. 2018/01/25an argitaratua: 6.1.4. artikulua): aurreko ataletan zehaztutako eginkizun moten arabera izango da.

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Itziar Joaristi, Jose Joakin Etxaniz.”

Iraitz Otaño jaunak puntu honetan bilkura utziko duela esan du, interesduna baita.

Ana Azkoitia andreak azaldu du prezioa pega bat izaten dela zerbitzu honetara atxikitzeko. Etxez etxeko zerbitzua ematea interesatzen dela, familiaren egoeraren gaineko informazio gehiago izaten delako. Horrek ordenantza aldatzea dakarrela esan du.

Idazkariak argitzen du erabaki hauek udaletxeko iragarki taulan eta Azkoitiko Udalaren web orrian argitaratu dira jartzen duenean esan nahi duela jendaurrean jartzen dela 30 egunez, alegazioak egiteko; ez dela zehazten baina horrela dela.

Jose Joakin Etxaniz jaunak dio beraiek erabilgarri izango duten diru kopuruna aipatzea falta zaiela esan du, orain zerbitzu gehiago izango dela.

Ana Azkoitia andreak hiru 3 baremo edukitzen direla kontuan esan du ze prezio ordaindu behar den zehazteko: eta jendearentzat onuragarriagoa dena dela.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Onuradun pertsona gehiago artatuko direnez eta egoera larrietan dauden herritar gehiagoren jarraipena egiten lagunduko digunez, ados.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Mari Jose Arregi Etxeberria, Itziar Joaristi Olariaga, Ane Miren Peña Larrañaga, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa zehazteko kalkulu sistema aldatzea, eta ondoriozko ordenantza fiskalaren aldaketa onartzea aho batez erabaki du.

**8.- AZKOITIKO MERKATARITZA LOKAL HUTSAK EKINTZAILE BERRIEN BITARTEZ BERRESKURATZEKO PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEEN ALDAKETAREN ONESPENA.**

Honako irizpena aurkeztu da:

**“OGASUNA, BARNE ANTOLAKUNTZA, PERTSONALA, KONTRATAZIOA, SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA MERKATARITZA BATZORDEAREN IRIZPENA**

**AZKOITIKO HIRI-LURREKO MERKATARITZA LOKALAK EKINTZAILE BERRIEN BITARTEZ BERRESKURATZEKO PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK**

**1.- AURREKARIAK**

- Azkoitiko hiri-lurreko lokalak ekintzaile berriekin berreskuratzeko programaren estrategien eta jardueren ardatza da, Azkoitiko hiri-lurreko hainbat eremuetan merkataritza berreskuratzea eta indartzea. Eremu horien indarberritze prozesurako funtsezkoa da merkataritza-jarduna bultzatzea; hain zuzen, eremu horiek ekonomikoki suspertzeko eta indarberritzeko. Horretarako, orain artean alde zaharrera soilik bideratuta zegoen merkataritza lokalak berreskuratzeko laguntzak Azkoitiko hiri-lur osora zabaldu behar dira.

**OINARRI JURIDIKOAK**

**Lehenengoa.- Diru-laguntzen oinarri arautzaileak**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Kasu honetan, legedi aplikagarria Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horretako erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua dira. Hain zuzen ere, 38/2003 Lege Orokorreko 17. artikuluan dago araututa Diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzeko prozedura eta, bertan, jaso beharrezko gutxienekoa. 17.2 atalean zehazten da oinarri orokor bidez ez bada oinarri espezifikoko bidez onartu behar direla diru-laguntza lerroak.

**Bigarrenkoa.- Interes orokorra**

- Martxoren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera ezarri zuen Espainiako lurralde osoan, Covid-19k eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko. Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak dio:

- *Se suspenden términos y se interrumpen los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público. El cómputo de los plazos se reanuda en el momento en que pierda vigencia el presente real decreto o, en su caso, las prórrogas del mismo. (...) se aplicará a todo el sector público definido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

Dena dela, dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 4. atalak jasotzen du:

- *Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, desde la entrada en vigor del presente real decreto, las entidades del sector público podrán acordar motivadamente la continuación de aquellos procedimientos administrativos que vengán referidos a situaciones estrechamente vinculadas a los hechos justificativos del estado de alarma, o que sean indispensables para la protección del interés general o para el funcionamiento básico de los servicios.*

Horiek horrela, beraz, hots, administrazio prozedurak etenda egonik herritarren interes orokorra bermatzeko eta zerbitzuaren oinarritzko funtzionamendurako prozedurek aurrera jarraitu dezakete dagokion argudioak plazaratuta.

Zalantzarik gabe esan dezakegu Merkataria direla hein handi batean herriari bizia ematen diotenak eta Merkataritza arloa izan da alarma-egoera honen kalteak sufritzen lehena, nahiz eta produktu edota zerbitzuaren arabera egoera aldatu, oro har galerak izan dira nagusi. Beraz, Azkoitiko herritarren interes orokorra da sektore hau babestea eta berau suspertzeko aukerak ematea.

**IRIZPENA**

**LEHENENGOA.** Proposatzen diren oinarri arautzaileak onartzea. Honako hauek dira proposatzen diren oinarri arautzaileak:

**AZKOITIKO HIRI-LURREKO MERKATARITZA LOKALAK EKINTZAILE BERRIEN BITARTEZ BERRESKURATZEKO PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK.**

**1.- ARRAZOIEN AZALPENA**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azkoitiko hiri-lurreko lokalak ekintzaile berriekin berreskuratzeko programaren estrategien eta jardueren ardatza da, Azkoitiko hiri-lurreko hainbat eremuetan merkataritza berreskuratzea eta indartzea. Eremu horien indarberitze prozesurako funtsezkoa da merkataritza-jarduna bultzatzea; hain zuzen, eremu horiek ekonomikoki suspertzeko eta indarberitzeko.

Horretarako, jarduera eta ekimen berriak ezarri nahi dira eremu horiei "bizia emateko". Susperraldi ekonomikoa bultzatzeko eta bideratzeko neurri garrantzitsuenetakoa da erabili gabeko edo gutxi erabilitako azalerei, kasu honetan merkataritza-lokalei, mugimendua eta bizia ematea.

## **2.- XEDEA**

Oinarri hauen xedea honako hau da: Azkoitiko hiri-lurreko lokalak betetzea edota jardueretan belaunaldiaren aldaketa sustatzea, ekintzaile berrien bitartez, merkataritza lokalak berreskuratzeko programaren testuinguruan. Halaber, merkataritza-jardueraren bat martxan jarri nahi duten ekintzaileek diru-laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak eta betekizunak zehaztea eta arautzea da oinarri hauen xedea.

Diru laguntzak Azkoitiko hiri-lurreko merkataritza lokalen alokairuetara zuzenduta daude.

Azkoitiko hiri-lurreko merkataritza lokalen alokairuaren ordainketa lagunduko da diruz, beti ere, aurreikusitako diru kopurua ez bada gainditzen.

## **3.- APLIKAZIO-EREMUA eta PROZEDURA**

Azkoitiko hiri-lurrean merkataritza-jardueraren bat abiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiei zuzendurik dago deialdia, edonon bizi direla ere.

Diru-laguntza hauetatik at geratuko dira negozioen lekualdatzeak.

Azkoitiko hiri-lurrean merkataritza-jarduerak zabaltzera eta indartzera bideratuko dira oinarri hauetan araututako laguntzak.

Diru-laguntza hau, gehienez, 24 hilabeteen jaso ahal izango da eta Azkoitiko Udalak jarduerari berariazko oniritzia ematen dionetik zenbatzen hasiko da. Azkoitiko Udalak berariazko oniritzia emateko eskatzaileari akatsak zuzen ditzan edo beharrezko diren dokumentuak eta irizpen-elementuak bidal ditzan eskatu behar dion kasuetan, kontuan hartuko da interesdunari errekerimendua jakinarazten zaionetik agindutakoa bete arteko denbora, eta diru-laguntza jasotzeko aukera izango duten hilabeteetatik kenduko da. Beraz, aurretiko komunikazioa aurkeztu eta beste tramiterik gabe Udalaren berariazko oniritzia jasotzen dutenek 24 hilabeteen jaso ahal izango dute diru-laguntza, aldiz, akatsak zuzendu edo dokumentazio berria aurkeztu behar izan ezker, denbora epe horretan, diru-laguntza jasotzeko aukera galduko dute eta 24 hilabeteen denbora epe hori kenduta geratzen den emaitzaren arabera jasoko dute diru-laguntza.

Errentamendurako laguntzaren esleipena gauzatzeko Azkoitiko Udalak jarritako baldintza guztiak bete behar dira. Banatzeko diru-laguntzen zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen badu eta Udalak ez badu handitzea erabakitzen, zenbateko hori diru-laguntza guztien artean proportzionalki banatuko da.

Deialdi honetan xedaturiko eremuan kokatzen diren lokaletan merkataritza-jarduera hasteko interesa duen edonork, jarduteko gaitasuna duenak, dagokion eskaera aurkeztu ahal izango du.

## **4.- DIRUZ LAGUNDUKO DIREN JARDUERAK**

Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira lokal horietan:

- Txikizkako merkataritza
- Pertsonen zuzendutako zerbitzu enpresak



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

· Intereseko izan eta merkataritza aldetik inguru hori suspertzen laguntzeko koherentea izango den beste edozein, betiere merkataritza-jarduera baldin badago.

### **5.- ESKATZAILEEK ONURADUN IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Dagokion jarduera gauzatzeko lokal bat alokatzen duten edota jarduera baten erreleboa hartzen duten ekintzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Negozio bideragarri baten proiektua izatea, betiere 4. puntuan zehaztutako jardueraren batekin lotua.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
- Programa honetan parte hartzeko eskaera-inprimakia, beteta aurkeztuta izatea.
- Proiektuak euskararen presentzia bermatua izatea.

Proiektua aurkezterakoan, saltoki berrian euskararekiko beteko diren irizpideak eta euskarak izango duen presentzia zehaztuko dira. Kontutan izan, programa honen bitartez diru-laguntzak jasotzeko euskararen nolabaiteko presentzia ezinbestekoa izango dela.

Ekintzaileek programa honetan jasotzen diren diru-laguntzez gain Udal Euskara Zerbitzutik ematen diren horiek jasotzeko aukera izango dute eta proiektua lantzerakoan eta baita hau martxan jarri ondoren, euskara zerbitzuko teknikariaren aholkularitza eta laguntza izango ditu.

e) Honako dokumentu hauek atxikitzea: sustatzailearen curriculum eta jardueraren memoria-proiektua (horretarako eskualdeko agentzia den Iraurgi Lantzen S.A.k bere laguntza eskaintzen du).

Memoriak ondoko puntu hauek jaso behar ditu:

- Negozioaren asmoa zein den labur azaltzea.
- Egitasmoaren ezaugarri berritzaileak, merkatuari balio erantsia ematen diotenak eta besteeikiko desberdintzen dutenak azaltzea.
- Proiektuak merkatuaren zer beharrian asetzen duen azaltzea. Negozioaren aukera azaltzea.
- Produktua edo zerbitzua, zein publiko objektibori bideraturik dagoen zehaztea; hau da, nor izan daitekeen bezero jakinaraztea.
- Negozio-asmoa martxan jartzeko beharko diren baliabideak adieraztea: teknologia eta azpiegitura, giza baliabideak, finantza-baliabideak, etab.
- Sortuko den lanpostu-kopurua azaltzea.
- Negozioaren ideia sustatzen duen taldeak ekintzaile izateko eta enpresa bat bideratzeko zer ahalmen eta gaitasun duen labur-labur zehaztea.

### **6.- BELAUNALDI ALDAKETA SALTOKIETAN. HUTSIK GERATU BEHAR DIREN LOKA KOMERTZIALEI JARRAITUTASUNA**

Jadanik aktibitate gabe dauden lokaletatik at, diru-laguntza hauek eman ahal izango dira hutsik geratu daitezkeen saltokietan ekintzaile berrien bitartez jarraitutasuna emateko.

Bi aukera emango dira:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1. Gaur egungo negozioa mantentzea negozio-lokalaren eskualdatzea burutuz.
  2. Lokal komertziala irekita mantentzea negozio berri baten bitartez.
- \* Negozioaren lekualdatzeak ez dira kontutan hartuko.

Lehenengo kasuan: martxan dagoen negozioa bideragarria dela frogatu beharko da, dagokion erakundeekin elkarlanean enpresaren gaur egungo bideragarritasuna frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuz (finantza alderdia, estrukturala, sektoriala, etab) eta transmisio edo jarraitutasun proposamen hauetarako aukeratu den negozioaren oinarriko datuekin fitxa bat osatuz (ze sektore dagokion, enpresaren antzintasuna, langile kopurua, non kokatuta dagoen, bezero-zorroa, etab). Ekintzaileak eskuratu duen negozioa modernizatzeko eta lan-errenta hobetzeko plan bat aurkeztu beharko da. Bakarrik enpresa bideragarri jarraitutasuna ematen dien ekintzaileek izango dute diru-laguntza jasotzeko aukera, beti ere lokalaren alokairua ematen denean.

Bigarrenko kasuan: martxan dagoen negozioa bertan behera utzi eta negozio berri bati emango zaio hasiera lokal komertzial horretan. Gogorazi, beste lokalak berreskuratzeko aurkeztzen diren proiektuetan bezala, Iraurgi Lantzen S.A. garapen agentziak bideragarritasun plana lantzeko laguntza ematen duela.

Bi kasuetan ekintzaileak eta lokalaren jabeak dagozkien eskaera inprimakiak osatu eta entregatu beharko dituzte.

#### **7.- LOKAL KOMERTZIALEN JABEEN ETA EKINTZAILEEN ARTEKO KONTRATUAK**

Ekintzaileek eskaera-inprimakiak aurkeztuko dituzte, errentamendu-kontratuarekin batera.

Aldeek kontratua betetzen ez badute edota bertan behera uzten badute kontratua, oinarri hauetan araututakoari men egin beharko zaio.

#### **8.- ERRENTAKO LOKALERAKO KONTRATUAREN IRAUPENA ETA LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Alokairu-kontratuaren iraupena, diru-laguntza esleitu zaion pertsona ekintzaileak lokalaren jabearekin sinatu beharrekoa, gutxienez, bi urtekoa izango da. Bi urte hauetan, eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa hileko alokairu-prezioaren %50ekoa da, gehienez, hilean 250,00 €-ko zenbatekoarekin.

#### **9.- LOKALAREN ERABILERA**

Programa honen diru-laguntzen onuradun titularrek derrigorrez eskatutako jarduerarako erabili beharko dute lokala, eta ezingo dute errentan hartutako lokala bestelako jarduera baterako erabili.

Era berean, indarrean den legediari jarraituz, jarduera martxan jartzeko eta aurrera eramateko beharrezkoak diren administrazio lizentziak eta baimenak izan beharko ditu.

Alokaturako lokalaren erabiltzeko eskubidea eta honen ustiapena esleipendunari dagokio eta ezin da beste inoren gain utzi, alegia, azpikontratazioa debekaturik dago.

Horrez gain, esleipendunak, derrigorrez, kontserbazio-egoera onean, txukun eta garbi eduki behar du errentan hartutako lokala. Lokala kontserbatzeko gastu arruntei kontratuan adostu bezala egingo zaie aurre.

#### **10.- DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO MODUA**

Lokalaren jabeak eta ekintzaile berriak adostuko dute errentaren kopurua, hau noiz eta nola egingo den kontratuan jasoko da.

Udalaren diru-laguntzaren esleipena lortu duen ekintzaileak, errentaren ordainketari aurre egiteko jasoko duen laguntza ekonomikoa kobratzeko, hiru hilez behin ordaindutako errenten ordainagiria aurkeztu beharko du Udaleko Erregistro Orokorrean, hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo lehen 15 egunen barruan. Hiruhilero, justifikatutako ordainketa bakoitzari dagokion laguntza ekonomikoa gainditutako azken hiruhilekora jasoko du ekintzaileak.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

### **11.- DIRULAGUNTZA BERTAN BEHERA UZTEA**

Oinarri hauetan jasotzen diren beste arauak ez betetzeaz gain, kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango dira honako hauek ere:

- Alokairuan hartutako lokalaren errentaren zenbatekoa hiru hilabetetan jarraian edo txandaka ez ordaintzea.
- Ekintzaileari egotz dakioken arrazoiren bat dela medio bi hilabete jarraian edo gehiago lokala itxita edukitzea edo jarduera etetea.
- Udalak alde zuzenetik baimenik eman gabe jarduera aldatzea.

### **12.- DIRU-LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA**

Oinarri hauetan zehaztutako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde eta organismoek emandako laguntzekin. Hala ere, gain-finantziakzioa ez da onartuko eta kasu horretan, dagokion zati proportzionala itzuli beharko du laguntzaren onuradunak.

### **13.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA**

Azkoitiko Udaleko merkataritza teknikariak balorazioa egin, eta dakion Batzordean azalpenak eman ondoren, Udaleko organo eskudunak erabakia hartuko du. Udaleko merkataritza teknikariak bere balorazioa egiteko, Herrixen Merkataritza elkarterako teknikariaren laguntza izango du.

### **15.- ESKAERAK ETA ADMINISTRAZIOKO AGIRIAK AURKEZTEA**

Eskaera inprimakiak behar bezala bete eta Herri Administrazioen Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkeztuko dira, besteak beste, Azkoitiko Udaleko web orriko tramiteak online atalaren bitartez (<https://azkoitia.eus/udala/tramiteak>) edo herritarren arreta zerbitzuan:

- Helbidea: Herriko plaza z.g 20720 AZKOITIA
- Asteleheneretik ostiralera: 7:30-15:30
- Udako ordutegia ekainaren 15etik irailaren 15 arte (biak barne): 08:00-14:00

Baldintza hauek argitaratzen diren hurrengo egunetik urtea amaitu arte izango da aukera eskariak aurkezteko.

Ekintzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake. Arau hauek hausten dituenari atzera botako zaizkio hark izenpetutako eskaera guztiak.

Eskaera bat aurkezteak esan nahi du proiektuaren eskatzaileak - sustatzaileak oinarri hauetan xedaturikoa inolako baldintzarik gabe onartzen duela.

Programan parte hartzeko proiektuak gutun-azal itxi bakar batean aurkeztu behar dira. Hautagaiak sinatuko du gutun-azal hori eta helbidea adieraziko du jakinarazpenetarako. Orobat, gutun-azalaren izendapena eta goiburua ere idatziko ditu.

Agiri hauek aurkeztu behar dira gutun-azal horretan, baliozkoa izateko:

- 1) Eskaera-inprimakia behar bezala beteta.
  - 2) Pertsona fisikoak: NANAren kopia. Pertsona juridikoak: IFKren kopia, legezko ordezkariaren NANA eta ordezkatzeko lege ahalmena duela ziurtatzen duen agiria.
- Enpresa jada eratuta badago, Gizarte Segurantzari eta Foru Aldundiko Ogasunari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatuko duen ziurtagiria.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Interesatutako pertsonak edo entitateek aukera izango dute, dokumentazio igortzen duen erakundea eta beharrezko baimenak kontuan izanda, oinarri orokor hauetan edo espezifikoetan eskatzen diren dokumentuak Azkoitiko Udalak ofizios dagokion erakundeari eskatzeko. Udalak dokumentu horiek eskatuko ditu, interesatuak dagokion dokumentu normalizatuan zehaztutako ukatze/baimen klausula betetzen duenean.

- 3) Ekintzailearen curriculumak.
- 4) Bideragarritasun-proiektuaren memoria, gutxienez honako datu hauek jasota: zer jarduera izango den, merkaturak, bezeroak/hornitzaileak, emaitzen aurreikuspena eta berrikuntza-maila, eta orokorrean, 5. artikuluan xedatzen den informazioa kontutan hartuta.
- 5) Lokalaren alokairuaren kontratua.

#### **16.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Dagokion legeriaren arabera, adjudikazio-organoak eskumen hauek ditu:

- a) Eskatera eta proiektuak interpretatzekoa.
- b) Eskera eta proiektuen bete beharrekoei dagozkion zalantzei buruzko erabakiak hartzekoa.
- c) Eskarari lotutako esleipena aldatzekoa, interes publikoko arrazoiak tarteko badira.
- d) Diru-laguntzaren esleipena bertan behera uztekoa eta erabaki horren ondorioak zehaztekoa.
- e) Diru-laguntzen esleipenak hutsik uztekoa, aurkeztu diren eskaerak programa honen helburuarekin bat ez badatoz edo eskatzen diren gutxienekoak betetzen ez badira.

**BIGARRENA:** Espedientea jendaurrean jartzea, Udaleko web orrian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**HIRUGARRENA:** Informazio hau jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik edo oharrik egin ez bada, behin betiko bilakatuko dira hartutako erabakiak, erabaki gehiagoren beharrik gabe.

Antolakuntza Batzordeak, 2020ko maiatzaren 21ean egindako bileran, gaia aztertu eta irizpena eman zuen, eta hau izan zen emaitza:

**ALDEKO BOTOAK:** Javier Zubizarreta, Ana Azkoitia, Sonia Vázquez, Janire Igoa, Itziar Joaristi, Iraitz Otaño, Jose Joakin Etxaniz.“

Ana Azkoitia andreak dirulaguntza hauek lehentasuna dutela esan du eta horregatik ekartzen direla oinarriak aldatzeko. Herri guztira zabaltzen dela orain, eta ez soilik alde zaharrera, merkatarien eskaera izan delarik herri osora zabaltzea. Eskaera egin eta guztia zuzen dutenek, 24 hilabeteko dirulaguntza izango dute. 2019an negozioa ireki duenak beharra dutela ikusi dute.





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Jose Joakin Etxaniz jaunak honakoa esan du: *“Badirudi azken urtean, alde zaharrea itxita dauden lokalak ez direla irekitzen eta aldiz, bai beste toki batzuetan. Beraz, oinarriak orain arte bezala utzi ezker, ez genuke onuradunik izango eta benetan pausu hau emateko balentria azaldu duenak laguntza bat merezi duela uste dugunez, gure aldeko bozka.”*

Bozketaren emaitza honakoa da:

**Aldeko botoak:** Javier Zubizarreta Zubizarreta, Ana Azkoitia Urteaga, Imanol Arrizabalaga Larrañaga, Mari Jose Arregi Etxeberria, Iraitz Otaño Mujika, Itziar Joaristi Olariaga, Ane Miren Peña Larrañaga, Janire Igoa Merino eta Jose Joakin Etxaniz Peña.

Beraz, Udalbatza Osoak Azkoitiko Merkataritza lokal hutsak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko programaren oinarri arautzaileen aldaketa onartzea aho batez erabaki du.

**9.- AZKOITIKO UDALA, ZUBIAURRE-ELKARGUNE INSTITUTUA ETA SAN JOSE EGOITZAREN 2019KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAREN ETA ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.**

Azkoitiko Udala, Zubiaurre-Elkargune Institutua eta San Jose Egoitzaren 2019ko aurrekontuaren likidazioaren kontu-hartzailearen txostenaren eta alkatearen dekretuen berri eman da.

**10.- 2019. EKITALDIKO FINANTZA KONTROLEKO URTEKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

2019ko ekitaldiko finantza kontroleko urteko txostenaren berri eman da.

**11. BEHIN BETIKO ONESPENEN BERRI EMATEA.**

Alkate jaunak honako behin betiko onespenen berri eman du:

*“2020ko martxoaren 25ean Udalbatzak onartutakoak eta alegaziorik egon ez denez behin betikoz onartuak:*

- *Udaleko aurrekontua gauzatzeko Udal Arauaren aldaketa.*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- 2020 ekitaldirako 1 zenbakia duen kreditu gehigarrien modalitateko kreditu aldaketa.”

## **12.- AURREKONTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Ondoren, aurrekontuari buruzko informazioa era honetan eman da:

	<b>Behin bet. aurr. Pres. def.</b>	<b>Baimendua Autorizado</b>	<b>Erabilia Dispuesto</b>	<b>Onart. oblig. Contraído</b>	<b>Ordainketa Pagado</b>
Oraingo ekitaldia/Ej. corriente GASTUAK	17.044.013,03	7.320.243,30	5.944.780,28	3.652.716,10	3.257.084,28
	<b>Behin bet. aurr. Pres. Def.</b>	<b>Onar. esk. Garb Dchos. Recs..</b>	<b>Bildut-garbia Recaudado</b>	<b>Kobr. Dagoena Pte. cobro</b>	<b>Itzulketak Devoluciones</b>
Oraingo ekitaldia/Ej. Corriente SARRERAK	17.044.013,03	3.844.059,69	2.905.093,05	938.966,64	10.950,37

## **13.- GALDE-ERREGUAK.**

Ez da galde-erregurik aurkeztu.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zortziak hogeita bost gutxi direnean eta nik, Idazkariak, akta hau jaso dut, Agirien Liburura transkribatuko delarik.

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

*\*Akta honen osagarria izango da, berarekin batera elektronikoki sinatzen den audioa.*

